1.- Ezaugarrien taulako **5.2 atalean** balio erantsiaren gaineko zerga barne harturik maximotzat adierazten dena da kontratuko lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa.	1.- El importe del presupuesto base de licitación del contrato es el señalado como máximo en el **apartado 5.2** del cuadro de características, incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.
2.- SPKLren 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, ezaugarrien taulako **5.3. atalean** adierazten dira, hala dagokionean, lizitaziorako oinarrizko aurrekontua zehazteko kontuan hartu diren kostu zuzenak, zeharkakoak eta bestelako gastuak.	2.- A los efectos de lo previsto en el artículo 100.2 de la LCSP, en **el apartado 5.3** del cuadro de características se indican, en su caso, los costes directos, indirectos y el resto de gastos que se han tenido en cuenta para la determinación del presupuesto base de licitación.
4.- Kontratuaren balio zenbatetsia	**4.- Valor estimado del contrato**
1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKLren 101. artikuluaren arabera kalkulatua eta ezaugarrien taulako **6. atalean** jasoa, kontuan hartu da bai kontratu honi aplikatuko zaion esleipen	1.- El valor estimado del contrato, calculado conforme al artículo 101 de la LCSP y recogido en el **apartado 6** del cuadro de características, ha sido tenido en cuenta para elegir, tanto el

prozedura eta izango duen publizitatea aukeratzeko bai pertsona fisiko eta juridiko lizitatzaileen (aurrerantzean lizitatzaileak) gaitasun baldintzak eta aplikatzeko errekurtsoen araubidea finkatzeko. Balio zenbatetsi horrek, horrela aurreikusten den kasuetan, hurrenez hurren ezaugarrien taulako **22. atalean** jasotzen den aukera balizko oro jasoko ditu, izan daitezkeen luzapenekin eta kontratuko aldaketa posibleekin batera.	procedimiento de adjudicación aplicable a este contrato y la publicidad a la que va a someterse, como para establecer las condiciones de aptitud de las personas físicas y jurídicas licitadoras (en adelante las licitadoras) y el régimen de recursos aplicable. Dicho valor estimado incluirá, en el supuesto de que así se prevean las posibles modificaciones contractuales señaladas en el **apartado 22** respectivamente del cuadro de características.
2.- SPKLren 101.5 artikuluan aurreikusiaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **6. atalean** adierazten da kontratuaren balio zenbatetsia zehazteko erabili den metodoa.	2.- A los efectos de lo previsto en el artículo 101.5 de la LCSP, en el **apartado 6** del cuadro de características se indica el método utilizado para la determinación del valor estimado del contrato.
5.- Kontratuaren prezioa	**5.- Precio del contrato**
1.- Kontratuaren prezioa esleipenetik ateratzen dena izango da. Balio erantsiaren gaineko zerga partida independente gisa jaso beharko du. Kontratuaren prezioan sartutzat joko dira aplikatu beharreko edozein motatako tributu, tasa eta kanonak, bai eta baldintza-agiri honetan aurreikusten diren betebeharrak betetzeak esleipendunari dakarzkion gastu guztiak ere.	1.- El precio del contrato será el que resulte de la adjudicación del mismo y deberá indicar como partida independiente el IVA. En el precio del contrato se considerarán incluidos los tributos, tasas y cánones de cualquier índole que sean de aplicación, así como todos los gastos que se originen para la adjudicataria como consecuencia del cumplimiento de las obligaciones contempladas en el presente pliego.
2. Pleguan eta kontratuan aplikagarri diren gainerako xedapenetan jasotako betebeharren ondorioz enpresa kontratistarentzat sortzen diren gastua guztiak, lizitazioaren xede den proiektuan egikaritzeko kostu zuzen eta zeharkakoen artean agertzen ez direnak, Egituraren Gastu Orokorretako portzentajearen barnean sartzen direla ulertuko da.	2.- Todos los gastos que se originen para la empresa contratista como consecuencia de las obligaciones recogidas en el pliego y el resto de disposiciones que sean de aplicación al contrato, que no figuren en el proyecto objeto de licitación entre los costes directos e indirectos de ejecución, se considerarán incluidos en el porcentaje de Gastos Generales de Estructura.
6.- Kreditua izatea	**6.- Existencia de crédito**
1.- Behar adinako kreditu egokia dago, kontratua gauzatzeko kalkulatutako gehieneko gastuari aurre egiteko. Kontratua aurrekontuko partiden kargura finantzatuko da, eta ezaugarrien taulako **7. atalean** ezartzen diren urteroko zenbatekoekin bat.	1.-.Existe crédito adecuado y suficiente para hacer frente al gasto máximo estimado del contrato a realizar. El contrato se financiará con cargo a la/s partida/s presupuestaria/s y conforme a la/s anualidad/es que se establecen en el **apartado 7** del cuadro de características.
2.- Ezaugarrien taularen hasieran aurreikusiarekin bat, eta SPKLren 117.2 artikuluan aurreikusiaren indarrez, espedientea aurrez tramitatzen bada, kontratuaren esleipenak etendura baldintza bat izango du, zehazki behar beste kreditu egokia izatea, dagokion ekitaldian kontratuari darizkion obligazioak beteko direla bermatzearren.	2.- Si de acuerdo con lo previsto al inicio del cuadro de características, a tenor de lo previsto en el artículo 117.2 de la LCSP, el expediente se tramita anticipadamente, la adjudicación del contrato queda sometida a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para garantizar las obligaciones derivadas del contrato en el ejercicio correspondiente.
7.-Betetzeko epea	**7.- Plazo de ejecución**
1.- Obrak osorik gauzatzeko gehienezko epea ezaugarrien koadroko **9. atalean** ezarritakoa izango da. Espresuki horrela adierazten denean, obraren exekuzio epea Administrazioak aukeratutako eskaintzan agertutakoa izango da eta kontratuaren esleipenean zehaztuko dena. Epe partzialik balego, horrelaxe zehaztuta azalduko da berariaz ezaugarrien koadroan.	1.- El plazo máximo para la ejecución total de las obras será el establecido en el **apartado 9** del cuadro de características. En los casos en que así se determine expresamente, el plazo de ejecución de la obra será el que figure en la oferta seleccionada por la Administración y así se determine en la adjudicación del contrato. Por lo que respecta a los plazos parciales, se estará a lo que se determine específicamente en el cuadro de características.
2.- Kontratuaren epea luzatu egin ahal izango da SPKLren 29.	2.- El plazo contractual será ampliable en los supuestos y

eta 195.2. artikuluetan eta urriaren 12ko Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko (aurrerantzean HAKLAO) 98. eta 100. artikuluetan ezarritako kasu eta baldintzetan. Edozein kasutan, epearen luzapena berariaz adostu beharko da.	condiciones establecidos en los artículos 29 y 195.2 de la LCSP en los artículos 98 y 100 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre (en adelante, RGLCAP). En todo caso, la ampliación de plazo debe ser acordada de forma expresa.
3.-Epea zuinketa egiaztatzeko aktaren dataren hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.	3.-El cómputo del plazo se iniciará desde el día siguiente al de la fecha del acta de comprobación del replanteo.
4.- Kontratistak behar baino azkarrago egin ahal izango ditu lanak obrak kontratuan zehaztutako epeen barruan gauzatzeko, baina ezingo du hori egin desegokia dela uste izateko arrazoiak ikusten baditu Administrazioak. Aurrekoaren kalterik gabe, enpresa kontratistak ez du dagokion urtealdiari esleitutako prezioa baino zenbateko handiagoa jasotzeko eskubiderik izango, eta zenbateko hori gainditzen duten ziurtagiriak hurrengo urtealdia hasitakoanordaindukodira.	4.- La empresa contratista podrá desarrollar los trabajos con mayor celeridad que la necesaria para ejecutar las obras en los plazos contractuales, salvo que a juicio de la Administración existiesen razones para considerarlo inconveniente. No obstante lo anterior, la empresa contratista no tendrá derecho a percibir mayor cantidad del precio que la consignada en la anualidad correspondiente, abonándose las certificaciones que excedan de dicha cuantía una vez iniciada la anualidad siguiente
8.- Prezioen berrikuspena	**8.- Revisión de precios**
1.- Bidezko bada, berrikuspena horrela adieraziko da ezaugarrien taulako **12. atalean**, formula aplikagarria jasoko baitu.	1.- Si procediera la revisión, se indicará en el **apartado 12** del cuadro de características, que recogerá la fórmula aplicable.
2.- Prezio berrikuspena SPKLren 103. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren baldintzetan egingo da.	2.- La revisión de precios tendrá lugar en los términos establecidos en la LCSP (artículos 103 y siguientes).
9.- Kontratuaren Iragarpena	**9.- Publicidad del contrato.**
1.- Kontratatzailearen profilean argitaratuko da administrazio publikoen kontratuak esleitzeko lizitazioaren iragarkia.	- 1.- El anuncio de licitación para la adjudicación de contratos de las Administraciones Públicas se publicará en el perfil de contratante.
2.- Kontratatzailearen profilean jasoko da kontratuaren lizitazioaren deialdiari buruzko informazioa, bai eta administrazio klausula partikularren agiriak eta, halakorik egonez gero, dokumentazio osagarria ere.	- 2.- En el perfil de contratante se ofrecerá información relativa a la convocatoria de la licitación del contrato, incluyendo los pliegos de cláusulas administrativas particulares y documentación complementaria, en su caso.
3.- Ezaugarrien taulako 2. atalean adierazten den helbide elektronikoan kontsulta daiteke kontratatzailearen profilean kontratu honi buruz argitaratzen den informazioa.	- 3.- La información relativa al presente contrato que vaya a ser publicada en el perfil de contratante podrá ser consultada en la dirección electrónica que se indica en el **apartado 2** del cuadro de características.
10.- Informazioa, zerga, ingurumen, emakume eta gizonen berdintasun, hizkuntza berdintasun, enpleguaren babes, lan baldintza eta laneko arriskuen prebentzio, eta datu babesaren arloan	**10.- Información en materia fiscal, medio ambiente, igualdad de mujeres y hombres, igualdad lingüística, protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales y protección de datos.**
Organismo hauetan lortu ahal izango da honelako gaiei buruz indarrean dauden obligazio eta xedapenen informazioa:	En los siguientes organismos se puede obtener información de las obligaciones y disposiciones vigentes en relación con
- Fiskalitatea: Donostiako Udalaren Ogasun eta Finantza Departamentuan, Gipuzkoako Foru Aldundikoan eta gainerako zerga administrazioetan.	- Fiscalidad: Departamento de Hacienda y Finanzas del Ayuntamiento de Donostia/ San Sebastián, y en el resto de Administraciones Tributarias.
- Enpleguaren babesa, lan baldintzak eta lan arriskuen prebentzioa, eta desgaituak gizartean eta lan munduan txertatzea: Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza.	- Protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales e inserción sociolaboral de personas con discapacidad: Dirección de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Trabajo y Justicia del Gobierno Vasco.

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: Emakunde organismo autonomoa. - Udal Berdintasunaren Atala	- Igualdad de mujeres y hombres: Organismo Autónomo EMAKUNDE- Instituto Vasco de la Mujer. - Sección de Igualdad Municipal
- Hizkuntza berdintasuna: Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetza. - Euskararen Udal saila	- Igualdad lingüística: Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco - Departamento municipal de Euskara
- Ingurumenaren babesa: IHOBE sozietate publikoa. - Udalaren Ingurugiro Saila	- Protección del medio ambiente: Sociedad pública IHOBE. - Departamento de Medio Ambiente municipal
- Datu pertsonalak babesa: Datuak Babesteko Euskal Agentzia. - Udalaren Lehendakaritza Saila	- Protección de datos de carácter personal: Agencia Vasca de Protección de Datos. - Departamento de Presidencia del Ayuntamiento
- Lehiaren Babesa Lehiaren Euskal Agintaritza https //www.competencia.euskadi.eus/webavc00-home/es/	- Defensa de la Competencia Autoridad Vasca de la Competencia https //www.competencia.euskadi.eus/webavc00-home/es/
11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak	**11.- Régimen jurídico del contrato y prerrogativas de la Administración**
1.- Kontratu honek izaera administratiboa du, SPKLren 25. artikuluaren arabera. Aldeak baldintza agiri honetan eta dena delako proiektuan jasotakoari espresuki lotuta gelditzen dira.	1.- El presente contrato tiene carácter administrativo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25 de la LCSP. Las partes quedan sometidas expresamente a lo establecido en este pliego y en el correspondiente proyecto.
2.- Baldintza administratibo partikularren agiriak eta kontratazio organoak onartutako proiektuak kontratu izaera dute. Klausula honetan adierazitakoaren froga gisa, esleipendunak sinatu egin beharko ditu plegu hauen orrialde guztiak kontratuaren formalizazio egintzan.	2.- El pliego de cláusulas administrativas particulares y el proyecto aprobado por el órgano de contratación, tienen carácter contractual. En prueba de conformidad de esta cláusula por el adjudicatario, en el mismo acto de formalización del contrato, los presentes pliegos deberán ser firmados en todas sus hojas.
3.- Baldintza agirietan jaso gabe dauden alderdietan, kontratua honako hauen bidez araututa geldituko da: Sektore Publikoko Kontratuen Legea (SPKL); maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena; eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO), urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaz onartu zena, aurrekoaren aurka ez doan guztian. Gainera, araututa geldituko da Euskal Autonomia Erkidegoan (apirilaren 6ko 3/2016 Legea, Kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk sartzen dituena) eta Udalean kontratazioa arautzen duten beste edozein xedapen aplikagarriren bidez ere. Arau horiek SPKLren xedapen indargabetzaileak eragin ez duen guztiari dagokionez aplikatuko dira. Nolanahi ere, kontratua datu pertsonalen babesari buruzko araudi nazionalari eta Europar Batasunari lotuta egongo da, bereziki 3/2018 Lege Organikoara eta Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrera.	3.- Para lo no previsto en los pliegos, el contrato se regirá por la LCSP, por el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público (RD 817/2009) y por el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado mediante Real Decreto 1098/2001, de 12 de Octubre (RGLCAP), en todo lo que no se oponga a la anterior. Además se regirá por cualesquiera otras disposiciones que regulen la contratación tanto a nivel de la Comunidad Autónoma de Euskadi (Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública) como a nivel del Ayuntamiento y que resulten aplicables. La aplicación de estas normas se llevará a cabo en relación con todo lo que no haya resultado afectado por la disposición derogatoria de la LCSP. En todo caso, el contrato estará sujeto a la normativa nacional y e la Unión Europea en materia de protección de datos personales, en particular al Reglamento General de Protección de Datos y la Ley Orgánica 3/2018.
4.- Nolanahi ere, aurretik aipatutako legezko eta erregelamenduzko arauak SPKLren aurka ez doazen guztiak aplikatuko dira.	4.- En todo caso, las normas legales y reglamentarias citadas anteriormente serán de aplicación en todo lo que no se oponga a la LCSP
5.- Ordezko gisa, zuzenbide administratiboko gainerako arauak	5.- Supletoriamente, se aplicarán las restantes normas de

aplikatuko dira eta, horiek izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak.	derecho administrativo y, en su defecto, las de derecho privado.
6.- Baldintza-agiri honen eta kontratuko beste dokumentuetako edozeinen artean desadostasunik izanez gero, baldintza-agiri hau nagusituko da.	6.- En caso de discordancia entre el presente pliego y cualquiera del resto de documentos contractuales, prevalecerá este pliego.
7.- Kontratuko klausulak, kontratuaren parte diren bestelako dokumentuak eta gauza hitzartua betetzeko unean aplikagarriak diren jarraibide edo arauak, edo horien alderdiren bat, ez ezagutzeak, ez du esleipenduna horiek guztiak betetzetik salbuesten.	7.- El desconocimiento de las cláusulas del contrato en cualquiera de sus términos, de los otros documentos contractuales que forman parte y de las instrucciones o de la normativa que resulten de aplicación en la ejecución de la cosa pactada, no exime a la adjudicataria de la obligación de cumplirlas.
8.- SPKLren 190. artikuluan aurreikusiarekin bat, kontratazio organoak du kontratu administratiboak interpretatzeko eta hauek betetzeko unean sortzen diren zalantzak erabakitzeko eskumena. Era berean, egindako kontratuak alde bakarretik aldatu ahal izango ditu, eta horiek suntsiaraztea erabaki ahal izango du, betiere SPKLk eta berau garatzeko xedapenek jasotzen dituzten mugen barnean eta baldintzetan eta aipatzen dituzten ondorioekin.	8.- El órgano de contratación ostenta, de acuerdo con lo previsto en el artículo 190 de la LCSP la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos y resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento. Igualmente, podrá modificar unilateralmente los contratos celebrados y acordar su resolución, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la LCSP y sus disposiciones de desarrollo.
9.- Kontratua aplikatu edo interpretatzerakoan, gauzatzean, aldatzean, betetzean edo suntsiaraztean sor litezkeen auziak udalaren organo eskudunek erabakiko dituzte, kontratistari entzun ondoren, SPKLren 191. artikuluan eta HAKLEOk 97. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Organo horiek hartzen dituzten erabakiak betearazi beharrekoak izango dira berehala.	9.- Las cuestiones litigiosas que pudieran surgir para la aplicación o interpretación del contrato, su ejecución, modificación, cumplimiento o resolución, serán resueltas, previa audiencia a la contratista conforme al procedimiento establecido en el artículo 191 de la LCSP y en el artículo 97 del RGLCAP, por los órganos competentes del Ayuntamiento y sus acuerdos serán inmediatamente ejecutivos.
10.- Interesdun baten eskariz hasitako prozeduretan, berariaz bestelakorik ezarri ez bada eta horien xedea diru zenbatekoak erreklamatzea, administrazio-prerrogatibak baliatzea edo administrazio-kontratu baten gauzatzeari, burutzeari edo azkentzeari buruzko beste edozein gai bada, ebazpena emateko aurreikusitako epea ebazpena jakinarazi gabe igaroz gero bere eskabidea administrazio-isiltasunez ezetsitzat jo ahal izango du interesdunak, nahiz eta bere horretan iraungo duen ebazteko betebeharrak.	10.- En los procedimientos iniciados a solicitud de una persona interesada, para los que no se establezca específicamente otra cosa, y que tengan por objeto o se refieran a la reclamación de cantidades, el ejercicio de prerrogativas administrativas o a cualquier otra cuestión relativa de la ejecución, consumación o extinción de un contrato administrativo, una vez transcurrido el plazo previsto para su resolución sin haberse notificado ésta, la persona interesada podrá considerar desestimada su solicitud por silencio administrativo, sin perjuicio de la subsistencia de la obligación de resolver.
12.- Errekurtso araubidea	**12.- Régimen de recursos**
Kontratazio organoaren ebazpenen kontra, errekurtso arruntak jar daitezke, lege hauetan jasotzen denarekin bat: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; sektore publikoko araubideari buruzko arautegia; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoa.	Contra las resoluciones del órgano de contratación se podrán interponer los recursos ordinarios previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o en la regulación vigente del régimen jurídico del sector público, así como en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.
II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA	**CAPÍTULO II - CONTRATACIÓN**
13.- Espediente mota eta lizitazio modua	**13.- Clase de expediente y forma de licitación**
1.- Kontratazio espedientea ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitako prozedura eta tramitazioari jarraikiz garatuko da.	1.- El expediente de contratación se realiza por el procedimiento y la tramitación previstos al inicio del cuadro de características.
Aldaerak onartzen direnean, lizitatzaileek aukerak eskaini ahal	En el supuesto de admisión de variantes, las licitadoras podrán

izango dituzte, ezaugarrien taulako **11. atalean** ezarritako moduan eta, betiere, ezaugarri tekniko partikularren agirian finkatutako baldintza, modalitate eta ezaugarriak jasoz, aipatu atale horretan bertan laburbiltzen baitira.	ofertar alternativas en la forma establecida en el **apartado 11** del cuadro de características y con los requisitos, modalidades y características técnicas fijadas en el pliego de prescripciones técnicas particulares y resumidas en dicho apartado.
14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak eta Lanbide edo enpresa baimenak/ gaikuntzak, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta lanbidezkoa edo teknikoa.	**14.- Personas naturales o jurídicas licitadoras y sus Autorizaciones/Habilitaciones profesionales, solvencia económica y financiera y profesional o técnica**
1.- Administrazioarekin kontratatu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiar zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko erabateko gaitasuna badute, kontratatzeko inolako galarazpenik eragiten ez badie, eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatzen badute, edo SPKL-k eskatzen badu, dagokion moduan klasifikaturik badaude.	1.- Podrán contratar con la Administración las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incursas en una prohibición de contratar, y acrediten su solvencia económica y financiera y técnica o profesional, o en los casos en que lo exija la LCSP, se encuentren debidamente clasificados.
Araudi aplikagarriak ezartzen duela-eta lizitatzaileari eskatzen zaionean bere antolakundeari, irabazien xedeari, finantzaketa sistemari edota beste batzuei buruzko zenbait baldintza betetzea esleipen prozeduran parte hartu ahal izateko, alderdi horiek prozeduran aurkezten denean egiaztatu beharko ditu.	Cuando, por así determinarlo la normativa aplicable, se le requieran a la licitadora determinados requisitos relativos a su organización, destino de sus beneficios, sistema de financiación u otros para poder participar en el correspondiente procedimiento de adjudicación, deberá acreditarlos al concurrir en el mismo.
2.- Proposamenak aurkezteko epearen amaiera egunean, lizitatzaileek ez dute izango SPKLk 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekurik. Kontratua esleitzeko garaian ere ez die kontratatzeko debekuetako batek berak ere eragin behar.	2.- Las licitadoras no deberán estar incursas en ninguna de las causas de prohibición de contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP en la fecha de conclusión del plazo de presentación de proposiciones. Tampoco deberán estar incursas en tal situación cuando se proceda a la adjudicación del contrato.
3.- Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.	3.- Las licitadoras deberán contar, asimismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de las prestaciones que constituyan el objeto del contrato.
4.- Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.	4.- Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios.
5.- Era berean, Administrazioak kontratuak egin ahal izango ditu aldi baterako eratzen diren enpresa elkarteekin; horrelakoetan, ez da beharrezkoa kontratua esleitzen zaion arte enpresa elkartea eskritura publiko bitartez eratuta egotea.	5.- La Administración podrá, igualmente, contratar con uniones de empresas que se constituyan temporalmente al efecto, sin que sea necesaria la formalización de las mismas en escritura pública hasta que se haya efectuado la adjudicación del contrato a su favor.
Aldi baterako enpresa elkarteei dagokienez, haien osaera aldatzen denean eta kontratua formalizatu aurretik eta ondoren gertatzen diren aldaketa kasuetan, SPKLren 69. artikuluaren 8 atalean eta ondorengoetan jasotakoari jarraituko zaio. Horretarako, zer zirkunstantzia gertatu den jakinarazi beharko zaio kontratazio organoari.	En relación con las uniones temporales de empresas, caso de alteración de su composición así como en los supuestos de modificación que se produzcan antes y después de la formalización del contrato, se estará a lo dispuesto en el artículo 69 apartado 8 y siguientes de la LCSP. A estos efectos, se deberá comunicar al órgano de contratación la circunstancia que se hubiere producido.
6.- Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Esparrua sinatu duten estatuetako enpresei eta Batasunetik kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan jasotakoa aplikatuko da	6.- En relación con las empresas comunitarias o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo y empresas no comunitarias será de aplicación lo dispuesto en los artículos 67 y 68 de la LCSP.
7.- Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, agiri honen xede den kontratua ezingo	7.-De acuerdo con lo establecido en el artículo 70.2 de la LCSP. el contrato objeto del presente pliego no podrá

zaie esleitu lizitazioko obrak zaindu, gainbegiratu, kontrolatu eta zuzentzeko helburua duten zerbitzu kontratuetako esleipendun diren enpresei, ezta horiekin lotura duten enpresei ere. Elkarren artean lotura duten enpresatzat hartuko dira Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenak.	adjudicarse a las mismas empresas adjudicatarias de los contratos de servicios que tengan por objeto la vigilancia, supervisión, control y dirección de las obras objeto de la licitación, ni a las empresas a éstas vinculadas, entendiéndose por tales las que se encuentran en alguno de los supuestos previstos en el artículo 42 del Código de Comercio
8.- Lizitatzaileek Ezaugarri Taularen gaikuntzak eta kaudimenak izan beharko dituzte. Eskaintzak aurkezteko azken egunerako bete behar dira gaitasunarekin, kaudimenarekin eta kontratatzeko debekurik ez izatearekin loturiko baldintzak, eta indarrean jarraitu beharko dute kontratua burutzen den unean.	8.- Las licitadoras deberán reunir las solvencias y habilitaciones exigidas en el cuadro de características. Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfeccionamiento del contrato.
15.- Proposamenak aurkeztea	**15.- Presentación de proposiciones**
1.- Proposamenak aurkezteko bide bakarra egongo da, Eusko Jaurlaritzako Kontratazioko Plataforma, eta lizitatzaileek nahitaez hor aurkeztu beharko dituzte proposamenak, kontratatzailearen profilean argitaratzen den lizitazio iragarkian adierazitako epean. www.contratacion.euskadi.eus Jakinarazpenak eta komunikazioak Plataforma horen bitartez egingo dira.	1.-Las proposiciones se presentarán necesaria y únicamente a través de la Plataforma de Contratación del Gobierno Vasco, en el plazo señalado en el anuncio de licitación publicado en el perfil de contratante. www.contratacion.euskadi.eus Las notificaciones y comunicaciones con los licitadores se realizarán a través de esta Plataforma.
2.- Dokumentuak izendatzeko unean kontuan hartuko dira baldintza-agiri honetako **18. eta 19. klausuletan** adierazitakoak, horietan adierazten baita bat eta bi artxibo elektronikoetan jaso beharreko dokumentu-edukia (dagokionean).	2.- Los documentos se nombrarán teniendo en cuenta los distintos apartados señalados en las **cláusulas 18 y 19** de este pliego como contenido documental a incluir en los archivos electrónicos uno y dos (en su caso).
3.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.	3.- Las proposiciones serán secretas y, para ello, se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de la licitación pública.
16.- Lizitatzaileei informazioa ematea	**16.- Información a las licitadoras**
1.- SPKLren 138.3 artikuluak aipatzen duen informazio osagarri edo gehigarria eman beharra dagoenean, administrazio kontratatzaileak informazio hori eman beharko du, beranduenez eskaintzak aurkezteko finkatutako azken eguna baino 6 egun natural lehenago, betiere informazio eskaera azken egun hori baino, gutxienez, 12 egun natural lehenago aurkezten bada. Eskari hori honako helbide elektronikoaren bitartez bideratu beharko da: kontratazioa@donostia.eus Kontratazio organoarentzat soilik helbide elektroniko honen bidez jasotako kontsultak eta eskainitako informazioak izango dira ofizialak eta lotesleak SPKLren 138.3 artikuluan xedatutakoaren karietara. Jasotako galdera guztiak eta kontratazio organoak emango dituen erantzun guztiak ikusgai izango dira kontratatzailearen profilean.	1.- Cuando sea preciso proporcionar la información adicional o complementaria a que se refiere el artículo 138.3 de la LCSP, la Administración contratante deberá facilitarla, a más tardar 6 días naturales antes de la fecha límite fijada para la presentación de ofertas, siempre que la solicitud se presente con una antelación mínima de 12 días naturales respecto de aquella fecha. Dicha solicitud se efectuará exclusivamente a través de la siguiente dirección electrónica: kontratazioa@donostia.eus Únicamente las consultas recibidas y las informaciones ofrecidas mediante el empleo de esta dirección electrónica serán oficiales y vinculantes para el órgano de contratación a efectos de lo previsto en el art. 138.3 de la LCSP. La totalidad de las cuestiones planteadas y las respuestas facilitadas por el órgano de contratación serán expuestas en el perfil de contratante.
2.- Baldintza agiriez edo gainerako dokumentazioaz eskatutako argibideak kontratatzailearen profilean publiko egiten diren kasuetan, erantzunak lotesleak izango dira.	2.- En los casos en que las aclaraciones solicitadas respecto de los pliegos o del resto de la documentación se hagan públicas en el correspondiente perfil de contratante, las respuestas tendrán carácter vinculante.

17.- Proposamenen edukia	**17.- Contenido de las proposiciones**
1.- Proposamenak hurrengo klausuletan adierazten diren artxibo elektronikoetan aurkeztuko ditu lizitatzaileak edo lizitatzailearen ordezkari diharduen pertsonak.	1.- Las proposiciones se presentarán en los archivos electrónicos que se indican en las cláusulas siguientes, por la licitadora o persona que ostente su representación.
2.- Artxibo elektroniko bakoitzean, aparteko orri edo fitxategi batean, artxiboaren edukia jasoko da, zenbakiz adierazita (HAKLEO, 80.1 artikulua).	2.- En el interior de cada archivo electrónico se hará constar en fichero independiente su contenido, enunciado numéricamente (art.80.1 RGLCAP).
18.- BAT zk.ko artxibo elektronikoa: "BALIO-JUDIZIOAREN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"	**18.- Archivo electrónico nº UNO: "DOCUMENTACIÓN A VALORAR CONFORME A UN JUICIO DE VALOR"**
1.- **Soilik ezaugarrien taulako 17.1 atalean aurretik eta balio judizio baten bitartez baloratu beharreko esleipen irizpideak jaso baldin badira**, lizitatzaileak BAT zenbakiko artxibo elektronikoa aurkeztu beharko du, "BALIO JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" izenarekin, horretan sartuz hartan eskatutako dokumentazioa.	1.- **Solamente en el caso de que en el apartado 17.1 del cuadro de características se hayan incluido criterios de adjudicación apreciables mediante juicio de valor que deban ser objeto de evaluación previa**, la licitadora deberá aportar un archivo electrónico nº UNO con el título "DOCUMENTACIÓN A VALORAR CONFORME A UN JUICIO DE VALOR", en el que incluya la documentación allí exigida.
2.- Era berean, judizio bidez balortu beharreko irizpideak badaude, 1. artxibo honako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da (hala badagokio).	2.- Asimismo, en caso de que haya criterios apreciables mediante jucio de valor, se aportará en el Archivo n.º 1 la siguiente documentación (si procede):
a.- Erantzukizunpeko adierazpena, SPKLren 159.4.c) artikuluan ezartzen den edukia aintzat hartuta. Enpresa atzerritarra bada, Espainiako foruaren mende jarriko dela ere adierazi beharko du. Horretarako, Europako Kontratazio Agiri Bakarra aurkeztu beharko du behar bezala beteta, Agiri hauen **I. eranskinean** jasotako jarraibideak betez.	**a.- Declaración responsable** con el contenido previsto en el artículo 159.4.c) de la LCSP. Si la empresa fuera extranjera, la declaración incluirá el sometimiento al fuero español. Para ello, presentará el Documento Único Europeo de Contratación (DEUC) de conformidad con lo previsto en el **Anexo I** de estos Pliegos.
b.- Desgaitasun kuotak eta berdintasun plana betetzeko erantzukizunpeko adierazpena. 50 langile edo gehiago dituzten enpresek konpromisoa hartu behar dute beren langileen %2a, gutxienez, desgaitasuna duten pertsonak izateko. Bestalde, 50 langile edo gehiago dituzten enpresek konpromisoa hartu behar dute berdintasun plana edukitzeko **(III. eranskina).**	**b.- Declaración responsable para el cumplimiento de las cuotas de discapacidad y el plan de igualdad.** Las empresas de 50 o más trabajadores y trabajadoras deberán comprometerse a cumplir el requisito de que el 2% de sus empleadas y empleados sean personas con discapacidad. Las empresas de 50 o más personas empleadas, además de lo anterior, deberán comprometerse a cumplir con la obligación de contar con un plan de igualdad. **(Anexo II).**
c.- Aldi baterako enpresa elkarte bat eratzeko konpromisoa, hala badagokio. Enpresa bi edo gehiago lizitazio batera aurkezten direnean aldi baterako elkartea sorturik, dokumentu pribatua aurkeztu beharko dute, elkartea osatuko duten enpresen izenak eta zertzeladak eta bakoitzaren partaidetza adierazita. Horiez gain, esleipendun gertatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela adierazi beharko dute (SPKLren 69. artikulua eta HAKLEOren 24. artikulua). Agiri hori elkartea osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere EKAB aurkeztu beharko du. Baldintza agiri honetako **III. eranskinean** jasotzen da aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.	**c.- Compromiso de constitución de Unión Temporal de Empresas, en su caso**. Cuando dos o más empresas acudan a una licitación constituyendo una unión temporal, deberán aportar un documento privado indicando los nombres y circunstancias de las empresas que la suscriban, la participación de cada una de ellas, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal, caso de resultar adjudicatarias (arts. 69 LCSP y 24 RGLCAP). El citado documento deberá estar firmado por quienes tengan la representación de cada una de las empresas componentes de la Unión. En estos casos, cada una de las empresas deberá presentar su declaración responsable. En el **Anexo III** de este pliego se incorpora el modelo de compromiso de constitución de Unión Temporal de Empresas.
c.- Ezaugarrien taulako **16. atalean** adierazten diren profil eta zehaztapenen araberako **pertsonak eta material aldetiko bitartekoak kontratua gauzatzeari atxikitzeko erantzukizunpeko adierazpena.** Baldintza agiri honetako **IV. eranskinean** jasotzen da eredua.	**c.- Declaración responsable de adscripción a la ejecución del contrato de los medios personales y materiales** con los perfiles y especificaciones que se indican en el **apartado 16** del cuadro de características. Se incorpora modelo en el **Anexo IV al presente pliego.**

e.- Enpresa lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpen berariazkoa, bera parte den enpresa taldeari buruzkoa eta talde berekoak diren sozietate guztiak jasotzen dituena, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan ezarritako eran. Adierazpen hori aurkeztu beharko da, baldin eta ezaugarrien taulako **17.3 atalean** proposamen bat nabarmen baxua dela irizteko parametroak ezartzen badira. Enpresa talde bateko kide ez izatekotan, adierazpenak horixe adierazi beharko du. **(V. eranskina).**	**e.- Declaración expresa responsable de la empresa licitadora relativa al grupo empresarial** al que pertenece y comprensiva de todas las sociedades pertenecientes a un mismo grupo, en los términos establecidos en el artículo 42 del Código de Comercio. Se aportará siempre y cuando en el **apartado 17.3** del cuadro de características se establezcan parámetros para considerar que una proposición es anormalmente baja. En caso de no pertenecer a ningún grupo empresarial, la declaración se realizará en este sentido **(Anexo V).**
f.- Lizitatzaileen dokumentu eta datu konfidentzialei buruzko adierazpena. Enpresa lizitatzaileek, hala dagokionean, adierazi beharko dute aurkeztutako ze dokumentu administratibo eta tekniko eta zer datu diren, beren ustez, konfidentzialtzat jotzeko modukoak. Hori, gainera, argi adierazi beharko da (gaininprimatuta, ertz batean edo beste edozein modutara) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke, baldin eta hirugarren pertsonen edo erakundeen artean zabaltzea haien bidezko merkataritza interes zilegien kontra badoa edo enpresen arteko lehia leialari kalte egiten badio. Adierazpen hori egin ezean, dokumentu edo datu konfidentzialik ez dagoela ulertuko da **(VI. eranskina).**	**f.- Declaración de los documentos y datos de las licitadoras de carácter confidencial.** Las empresas licitadoras tendrán que indicar, si es el caso, qué documentos administrativos y técnicos y datos presentados son, a su parecer, constitutivos de ser considerados confidenciales. Esta circunstancia deberá reflejarse (sobreimpresa, al margen o de cualquier otra forma) en el propio documento señalado como tal. Los documentos y datos presentados por las empresas licitadoras pueden ser considerados de carácter confidencial cuando su divulgación a terceras personas o entidades pueda ser contraria a sus intereses comerciales legítimos o perjudicar la competencia leal entre empresas. De no cumplimentarse esta declaración se presumirá que ningún documento o dato posee dicho carácter **(Anexo VI).**
g.- Atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioko berezitasunak. Atzerriko lizitatzaileek, aurreko a) letrako erantzukizunpeko adierazpenaz gain, ondoren zehazten den dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko dute.	**g.- Especialidades en la documentación que han de presentar las licitadoras extranjeras.** Las licitadoras extranjeras deberán presentar, además de la declaración responsable a que se refiere la letra a) anterior, la documentación específica que a continuación se detalla.
Espainiarrak ez diren enpresa guztiek aurkeztu beharrekoa:	Todas las empresas no españolas deben aportar:
1. **Edozein ordenatako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren mendean jartzeko adierazpena,** kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, hala dagokionean uko eginez lizitatzaileari egoki dakiokeen atzerriko jurisdikzio foruari (SPKLren 140.1 f) artikulua)**.**	1) **Declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales Españoles de cualquier orden** para todas las incidencias que, de modo directo o indirecto, pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder a la licitadora (art.140.1 f) de la LCSP).
Europar Batasunaren kide edo Europar Espazio Bakarrari buruzko Akordioaren sinatzaile ez diren estatuetako enpresek honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:	Las empresas de Estados que no sean miembros de la Unión Europea o signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Único Europeo deberán aportar además:
• Enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak emandako **txostena**, eta bertan jasota geldituko da, enpresak aurrez frogatuta betiere, tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoren batean izena emanda dagoela edo, bestela, tokiko trafikoan ohikotasunez aritzen dela kontratuaren xede diren jardueren esparruan**.**	- **Informe** expedido por la Misión Diplomática Permanente u Oficina Consular de España del lugar del domicilio de la empresa, en el que se haga constar, previa acreditación por la empresa, que figura inscrita en el registro local profesional, comercial o análogo o, en su defecto que actúa con habitualidad en el tráfico local en el ámbito de las actividades a las que se extiende el objeto del contrato.
• **Elkarrekikotasun txostena,** SPKLren 68. artikuluak aipatua. Erregulazio harmonizatuko kontratuak direnean, berriz, txosten horren ordez Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo Ekonomia Ministerioaren Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren txostena beharko da, Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren estatu sinatzaile izaerari buruzkoa. Esleipendun enpresa, kasu	- **Informe de reciprocidad,** al que se refiere el artículo 68 de la LCSP, salvo que se trate de contratos sujetos a regulación armonizada, en cuyo caso se sustituirá por un informe de la Misión Diplomática Permanente o de la Secretaría General de Comercio Exterior del Ministerio de Economía sobre la condición de Estado signatario del Acuerdo sobre Contratación Pública de la Organización Mundial de Comercio.

horretan, Espainian ireki beharko du sukurtsala, eta ordezkariak eta boteredunak izendatu beraien operazioetarako, eta Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da.	La empresa adjudicataria, en este caso, deberá abrir sucursal en España con designación de apoderados y representantes para sus operaciones, y deberán inscribirse en el Registro Mercantil.
h.- Langileei aplikatuko zaien **Hitzarmen Kolektiboaren adierazpena, IX. eranskineko** ereduaren arabera; aitzitik, soldaten baldintzen hobekuntza ezaugarrien taulako 17.2. atalean (formulen aplikazioaren bitartez ebaluatzeko irizpideak) esleipen irizpide bezala ezarri bada, BI zenbakiko artxiboan joan beharko da edo, bere kasuan, BAKARREAN. Lizitatzaileak adierazi beharko du zein den aplikatu beharreko lan hitzarmen kolektiboa kontratuaren xedea gauzatuko duten langileei, eta lan hitzarmen hori enpresa edo sektore esparrukoa den. Lizitatzaileak adierazitako hitzarmen aplikagarria enpresakoa izanez gero, adierazi beharko da, halaber, zein izango litzatekeen lan hitzarmen sektorial aplikagarria, enpresak hitzarmenik ez izatekotan, hura ordezkatzeko.	**h.- Declaración del Convenio Colectivo** a aplicar a los trabajadores según modelo del **Anexo IX**; a no ser que en el apartado 17.2 del cuadro de características (criterios a evaluables mediante la aplicación de fórmulas) se haya establecido como criterio de adjudicación la mejora de las condiciones salariales, en cuyo caso deberá ir en el archivo n.º DOS o, en su caso, ÚNICO. La empresa licitadora deberá indicar cuál es el convenio colectivo aplicable a los y las trabajadoras que van a ejecutar el objeto del contrato y si dicho convenio es de ámbito sectorial o de empresa. En el caso de que el convenio aplicar declarado por el licitador fuera de empresa, deberá indicarse así mismo el convenio sectorial que, de no existir el de empresa, sería de aplicación.
3.- Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak noiznahi eska diezaieke lizitatzaileei dokumentu bidez justifikatzeko betetzen dutela erantzukizunpeko adierazpen bidez adierazi duten hori. Lizitatzaileek gehienez ere bost egun balioduneko epean aurkeztu beharko dute eskatutako dokumentazioa, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Errekerimendua esandako epean behar bezala betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzaileak bere eskaintza kendu egin duela eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.	3.- El órgano de contratación o la mesa de contratación podrán, en cualquier momento, solicitar la justificación documental del cumplimiento de las condiciones sobre las que las licitadoras hubieran declarado responsablemente su cumplimiento. La licitadora deberá presentar la documentación requerida en un plazo suficiente que no podrá ser superior a 5 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la recepción del requerimiento. De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta y será excluida del procedimiento.
4.- Artxibo horretan ez da inolaz ere sartuko BI zenbakiko artxibo elektronikoan behar duen dokumenturik.	4.- En ningún caso deberán incluirse en este archivo electrónico documentos propios del archivo electrónico nº DOS.
19.- BI zenbakiko artxibo elektronikoa: "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA"	**19.- Archivo electrónico nº DOS: "OFERTA ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN EVALUABLE MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS"**
1.- "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA" izeneko artxibo elektronikoan, eskaintza ekonomikoa eta formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko bestelako dokumentuak jaso beharko dira. Ez badago 1. artxiborik, balio judizio bidez balioetsi beharreko esleipen irizpiderik ez aurreikusteagatik, artxibo hau **BAKARRA** deituko da (BI zenbakiko artxiboaren ordez).	1.- En este archivo electrónico titulado "OFERTA ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN EVALUABLE MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS", se deberán incluir la oferta económica y el resto de documentos a evaluar mediante la aplicación de fórmulas. En caso de que no haya archivo n.º UNO por no haber criterios sujetos a juicios de valor, este archivo se denominará **ÚNICO** (en lugar de archivo n.º DOS).
2- Proposamenak **VIII. eranskinean** jasotako eredura egokitu beharko dira, eta ez da onartuko Administrazioak eskaintza kontuan hartze aldera funtsezkotzat hartzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten hutsak, akatsak edo ezabapenak dituen proposamenik. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek, partida independente gisa, balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute, jasanarazi behar den kasuan.	2.- Las proposiciones deberán ajustarse al modelo que figura en el **Anexo VIII**, no aceptándose aquellas que contengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que la Administración estime fundamental para considerar la oferta. Las ofertas económicas de las licitadoras deberán indicar, como partida independiente, el importe del Impuesto sobre Valor Añadido que deba ser repercutido.
Bai eskaintza ekonomikoa bai artxibo elektroniko horietan jasotzen den bestelako dokumentazioa ezaugarrien taulako **17.**	Tanto la oferta económica como el resto de documentación contenida en este archivo electrónico serán evaluadas

atalean adierazten diren irizpideekin bat ebaluatuko dira.	conforme a los criterios expresados en el **apartado 17** del cuadro de características.
3- Horrez gain, 1. artxiborik ez badago, irizpide guztiak formulen bidez ebaluatzekoak izateagatik, **VIII. eranskinean** aurreko 18.2 atalean zerrendatutako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da (EKAB, zinpeko aitorpenak, e.a.).	3.- Adicionalmente, en caso de que no haya archivo nº1, por ser todos los criterios a evaluar mediante fórmulas , al referido **Anexo VIII** se adjuntará la documentación indicada en la anterior cláusula 18.2 (DEUC, declaraciones responsables, etc.).
6.- Enpresa kontratistak bete egin beharko ditu urriaren 18ko 32/2006 Legeak, Eraikuntzaren Sektorean Azpikontratazioa Arautzekoak, ezarritako arauak, baita laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden arauak ere, eta azpikontratista orori ere araudi horibetearaziko dio. Kontratistak inola ere ezingo du hitzartu kontratuaren zati bat egitea lege ordenamenduaren arabera kontratatzeko ezgaituta dauden pertsonekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan jasotako kasuetan daudenekin.	6.- La contratista cumplirá las normas sobre subcontratación establecidas en la Ley 32/2006, de 18 de octubre, Reguladora de la Subcontratación en el Sector de la Construcción, así como la normativa vigente en materia de seguridad y salud en el trabajo, y se asegurará del cumplimiento de dicha normativa por parte cada subcontratista. En ningún caso podrá concertarse por la empresa contratista la ejecución parcial del contrato con personas inhabilitadas para contratar de acuerdo con el ordenamiento jurídico, o comprendidas en alguno de los supuestos del artículo 71 de la LCSP.
7.- Enpresa kontratistak azpikontratazioaren berri emango die langileen ordezkariei, lan arloko legediak agintzen duen bezala.	7.- La empresa contratista deberá informar a las y los representantes del personal adscrito a la subcontratación, de acuerdo con la legislación laboral.
8.- Enpresa edo erakunde esleipendunak kontratazio organoari aurkeztu beharko dio azpikontratuaren dokumentua, eta	8.- La empresa o entidad adjudicataria deberá presentar ante el órgano de contratación el documento en el que se plasmará

dokumentu horretan ezarriko dira enpresa edo erakunde azpikontratistak kontratua betetzeko dituen betebeharrak eta ez betetzeak ekarriko dituen ondorioak.	el subcontrato, que deberá establecer las obligaciones de la empresa o entidad subcontratista con relación a las cláusulas previstas en el presente contrato y las consecuencias de su incumplimiento.
39.- Informazioaren segurtasun alorrari dagozkion betebeharrak	**39.- Obligaciones en materia de seguridad de la información**
1.- Esleipendunak eta datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen duen edozein pertsonak horiei buruzko sekretu profesionala mantendu beharko du, eta datu horiek babestu beharko ditu. Betebehar horiek indarrean egongo dira Donostiako Udalarekin duen harremana amaituta ere.	1.- La adjudicataria y toda persona que intervenga en cualquier fase del tratamiento de datos de carácter personal está obligada al secreto profesional respecto de los mismos y al deber de guardarlos, obligaciones que subsistirán aun después de finalizar sus relaciones con el Ayuntamiento de San Sebastián.
2. - Esleipendunak kontratua betetzeko beharrezko izan ditzakeen izaera pertsonaleko datuen erabilera datu pertsonalen babesaren esparruan indarrean dagoen legedia betez egingo da; baita Donostiako Udalak xedatutakoa bete zere.	2.- La utilización por la adjudicataria de datos de carácter personal que pueda resultar precisa para el cumplimiento del contrato, se efectuará con observancia de la legislación vigente en materia de protección de datos de carácter personal; así como con arreglo a las instrucciones que le indique el Ayuntamiento de San Sebastián.
3. - Esleipendunak ezingo ditu datu horiek hirugarrengoei laga edo kontratua betetzeko helburu zehatzak ez diren beste helburuetarako erabili.	3.- La adjudicataria no podrá facilitar estos datos a terceros ni utilizarlos con finalidades distintas a las precisas para el cumplimiento del contrato.
4. - Esleipendunak, datu horien tratamendurako arduradun gisa, datu pertsonalen segurtasunerako beharrezkoak diren neuri tekniko edo antolakuntzazkoak aplikatuko ditu, datu horiek aldatzea, galtzea, baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea saihesteko, aukera horiek bai giza jardueratik beretik bai ingurune fisiko edo naturaletik datozenak izandaitezkeelarik.	4.- La adjudicataria se obliga, en su condición de encargada del tratamiento, de adoptar las medidas de índole técnica y organizativa necesarias que garanticen la seguridad de los datos de carácter personal y eviten su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado, ya provengan de la acción humana o consecuencia del medio físico o natural.
5.- Kontratuaren iraunaldian zehar, Donostiako Udalak beharrezkotzat jotzen dituen kontrolak egitea onartuko du esleipendunak, hain zuzen ere segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezarri ahalizateko.	5.- La adjudicataria permitirá que el Ayuntamiento de San Sebastián realice los controles que considere oportunos durante el periodo de vigencia del contrato para verificar el cumplimiento de las medidas de seguridad y poder adoptar las medidas correctoras oportunas.
6.- Kontratuko zerbitzua amaitu ondoren, esleipendunak izaera pertsonaleko datuak deuseztatu beharko ditu, edo itzuli beharko dizkio Doonostiako Udalari edota honek izendatutako tratamendurako arduradunari.	6.- La adjudicataria, a la finalización de la prestación contractual, deberá destruir los datos de carácter personal o deberá devolverlos al Ayuntamiento de San Sebastián u a otra persona encargada del tratamiento designada por ésta.
7.- Enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, Donostiako Udala zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak beregain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Donostiako Udalak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.	7.- Si a consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista o subcontratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, el Ayuntamiento de San Sebastián fuera condenada al pago de cantidades, se repercutirá en la contratista la suma satisfecha, a cuyos efectos el Ayuntamiento de San Sebastián se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades pagadas.
40.- Eraikitzeko eta eraisteko hondakinei buruzko betebeharrak	**40. Obligaciones en materia de residuos de construcción y demolición**
1.- Plegu honetako ezaugarrien taulako **26. Atalean** horrela aurreikusten denean, aplikagarri den araudian aurreikusitako betebeharrez gain, obra gauzatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak plan bat aurkeztu behar dio obraren jabeari. Obran	1.- Cuando así se prevea en el **apartado 26** del cuadro de características de este pliego, además de las obligaciones previstas en la normativa aplicable la persona física o jurídica que ejecute la obra estará obligada a presentar a la propiedad

sortuko diren eraikuntza- eta eraispen-hondakinei eta –materialei lotuta dagozkion betebeharrak nola beteko dituen islatu behar du plan horretan, zehazki, Eraikitze eta Eraisteko hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuko 4.1. eta 5. artikuluan jasotako betebeharrak islatuz.	de la misma un plan que refleje cómo llevará a cabo las obligaciones que le incumban en relación con los residuos de construcción y demolición que se vayan a producir en la obra, en particular las recogidas en el artículo 4.1. y en el artículo 5 del Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.
2.- Behin zuzendaritza fakultatiboak onartuta, plana obrako kontratuzko dokumentuen parte izango da.	2.- El plan, una vez aprobado por la dirección facultativa, pasará a formar parte de los documentos contractuales de la obra.
3.- -Betebehar horiek ez betetzeak berekin ekarriko du SPKL Legearen 192. artikuluan aurreikusitako zigorra ezartzea, kontratuko xede den prestazioa akatsekin gauzatzeagatik.	3.- El incumplimiento de estas obligaciones dará lugar a la imposición de la penalidad prevista en el artículo 192 de la LCSP, por ejecución defectuosa de la prestación objeto del contrato.
4.-Zigorra, ez betetzearen araberakoa izango da, proportzio irizpide bati jarraituz.	4.- La penalidad será conforme a la gravedad del incumplimiento, de acuerdo con un criterio de proporcionalidad
41.- Lantaldeari eta gizabitartekoei buruzko betebeharrak	**41.- Obligaciones referentes al equipo y medios personales**
1.-Kontratistak lantalde eta langile egokiekin egin behar ditu obrak, eskaintzak jasotzen dituen bitartekoak barne, eta lanen martxak noiznahi sortzen dituen premiei behar bezala erantzun.	1.- La empresa contratista deberá ejecutar las obras con el equipo y medios personales adecuados así como los incluidos en su oferta, respondiendo en todo momento a las necesidades que se deriven de la marcha de los trabajos.
2.-Zehazki, bere kontura aurreikusi behar du proiekturako eta obrarako beharko duen laguntza tekniko guztia, lan eta espezialitate bakoitzak eskatzen dituen premiei ondo erantzuteko gai izango dena.	2.- Deberá, en concreto, prever a su cargo la necesaria asistencia técnica al proyecto y obra, con la capacidad suficiente como para atender las necesidades propias de los distintos trabajos y especialidades.
3.-Administrazioak bereziki delikatu edo kritikoak diren gai edo arloetan arduradunak izango diren adituak izendatzeko eskatu ahalko dio enpresa kontratistari, baldin eta obretako Zuzendaritza Fakultatiboaren ustez horien beharra badago. Eskakizun horiek ezaugarrien taulako 14. atalean zehaztuko dira.	3.- La Administración podrá exigir a la empresa contratista el nombramiento de especialistas responsables en aquellos temas o materias especialmente delicados o críticos que a juicio de la Dirección facultativa de las obras así lo requieran, cuando así se determinen en el apartado 14 del cuadro de características.
4.-Enpresa kontratista behartuta dago, plegu honetan aipatzen diren lanak egiteko, bere eskaintzan izenez aipatutako teknikariak eta beste langileak izendatzera, kontratua sinatu aurretik, bertan zehazten den dedikazioarekin. Ondorioz, kontratuak irauten duen bitartean, dedikazio osoarekin izendatutako langileek ezingo dute beste ezertan lan egin. Halaber, enpresa kontratistak ezingo ditu izendatutako langileak ordeztu, baldin eta kontratuaren arduradunaren berariazko baimenik ez badu. Horregatik, kontratistak lanak egiteko izendatu dituen langileak aldatu ahal izateko administrazioaren onarpena beharko du eta, hala eskatzen bazaio, sartu nahi dituen langile berrien curriculuma aurkeztu beharko du aldez aurretik.	4.- La empresa contratista estará obligada a asignar para la ejecución de los trabajos a que se refiere el presente pliego, las y los facultativos y el resto de personal que se haya identificado nominalmente con anterioridad a la firma del contrato, con la dedicación definida en la misma. Por consiguiente, durante la vigencia del contrato, el personal asignado al mismo con dedicación completa, no podrá intervenir en otro trabajo. Asimismo, la empresa contratista no podrá sustituir al personal nominado, sin la expresa autorización del Responsable del contrato. A estos efectos, cualquier sustitución del personal técnico comprometido por la empresa contratista para la ejecución del contrato deberá ser aceptada por la Administración previa presentación, si así se exige, del curriculum de la persona o personas de nueva designación.
5.-Pertsona kolaboratzaileen parte-hartzea proposatzen bada, horien lankidetza- konpromisoaren adierazpena helarazi beharko da. Enpresa kontratistak ezingo die bere eskaintzan proposatutako kolaborazioei uko egin eta ezingo ditu beste batzuekin ordeztu Kontratuaren arduradunaren onarpenik izan ezean.	5.- En caso de proponer el concurso de personas colaboradoras se deberá aportar su declaración de compromiso de colaboración. La empresa contratista no podrá prescindir de las colaboraciones propuestas en su oferta ni sustituirlas por otras sin la aprobación del Responsable del contrato.

6.-Aurreko lerroaldeetan ezarritako betebeharrak gauzatzeko baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren %10. Nolanahi ere, betebehar baten ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du. Isun horiek kobratzeko, isunaren zenbatekoa osoki edo zati batean kenduko da enpresa kontratistari ordaindu beharreko zenbatekotik; bestela, bermearen bidez ordaindukodira.	6.- Las obligaciones impuestas en los párrafos anteriores se establecen como condiciones especiales de ejecución y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución del contrato. Su incumplimiento supondrá la imposición de penalidades económicas, proporcionales a la gravedad del incumplimiento y su cuantía no podrá ser superior al 10 por 100 del precio del contrato. En todo caso, las obligaciones cuyo incumplimiento tenga carácter muy grave tendrán la consideración de obligaciones contractuales de carácter esencial, pudiendo dar lugar su incumplimiento a la resolución del contrato. Tales penalidades se harán efectivas mediante deducción de las cantidades que, en concepto de pago total o parcial, deban abonarse a la empresa contratista, o sobre la garantía.
42.- Makinaria eta bitarteko teknikoei buruzko betebeharrak	**42.- Obligaciones referentes maquinaria y medios técnicos**
1.- Kontratistak bere eskaintzan aipatutako makinak eta bitarteko teknikoak ere obretan jarriko ditu eta, oro har, obrak ondo egiteko behar diren guztiak.	1.- La empresa contratista aportará también a las obras la maquinaria y los medios técnicos incluidos en su propuesta y, en general, cuantos se precisen para la buena ejecución de aquellas.
2.- Esleipendunak bere eskaintzan sartutako makinak edo bitarteko teknikoak aldatu ahal izateko, proposamen arrazoitu bat aurkeztu beharko du, eta administrazioaren onarpena behar du.	2.- Cualquier sustitución de la maquinaria o medios técnicos incluidos en su oferta deberá ser aceptada por la Administración, previa presentación de una propuesta justificada.
3.- Makinak eta bitarteko teknikoak lana ongi egiteko baldintzatan eduki behar da, eta kontratuaren xede-obrara behar besteko dedikazioa eskainiko diote. Erretiratu nahi izanez gero, aurrena zuritu egin beharko da xede zuten lan-unitatea amaitu dela, eta ondoren, Zuzendaritza fakultatiboak baimendu egin beharko du.	3.- La maquinaria y los medios técnicos se mantendrán en todo momento en condiciones de trabajo satisfactorias y con la dedicación necesaria a las obras objeto del contrato, no pudiendo ser retirados sin autorización de la Dirección facultativa, previa justificación de la terminación de las unidades de obra para cuya ejecución se habían previsto.
4.- Aurreko lerroaldeetan ezarritako betebeharrak gauzatzeko baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren %10. Nolanahi ere, betebehar baten ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du. Isun horiek kobratzeko, isunaren zenbatekoa osoki edo zati batean kenduko da enpresa kontratistari ordaindu beharreko zenbatekotik; bestela, bermearen bidez ordainduko dira.	4.- Las obligaciones impuestas en los párrafos anteriores se establecen como condiciones especiales de ejecución y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución del contrato. Su incumplimiento supondrá la imposición de penalidades económicas, proporcionales a la gravedad del incumplimiento y su cuantía no podrá ser superior al 10 por 100 del precio del contrato. En todo caso, las obligaciones cuyo incumplimiento tenga carácter muy grave tendrán la consideración de obligaciones contractuales de carácter esencial, pudiendo dar lugar su incumplimiento a la resolución del contrato. Tales penalidades se harán efectivas mediante deducción de las cantidades que, en concepto de pago total o parcial, deban abonarse a la empresa contratista, o sobre la garantía.
43.- Baimen eta lizentzien kudeaketaren inguruko betebeharrak	**43.- Obligaciones relativas a la gestión de permisos, licencias y autorizaciones**
1.- Lanak behar bezala egiteko behar diren baimen edo lizentzia guztiak lortzea enpresa kontratistaren erantzukizuna eta kontua da, non eta kontratazio organoak bere kasa kudeatzea erabakitzen ez duen; eta haien gaineko eskumena dutenek ezarritako baldintzak eta ezaugarriak bere kontura bete behar ditu kontratistak.	1.- Será de cuenta y responsabilidad de la empresa contratista, salvo que el órgano de contratación decida gestionarlo por sí mismo, la obtención de cuantos permisos, licencias y autorizaciones sean precisos para la correcta ejecución de los trabajos, debiendo atender los consiguientes condicionados y prescripciones de los organismos competentes.
2.- Baimenak edo lizentziak eskuratzeak tasa, fidantza edo bestelako gasturen bat baldin badakar, horien ordainketak edo horietarako gordailua egitea ere enpresa kontratistaren kontua	2.- Cuando se exijan tasas, fianzas u otros gastos por dichos permisos, licencias o autorizaciones, su abono o depósito será

izango da.	también a cargo de la empresa contratista.
44.- Kontratistari eskatu ahal zaizkion gastuak.	**44.- Gastos exigibles al contratista.**
Kontratistaren kontura izango dira kontratua formalizatzeko gastuak Eskritura Publikora eramaten bada. Era berean, bere kontura izango dira, kontratatutako prestazioa betetzeko enpresak egin beharreko gastuak, horien barnean daudelarik gastu orokorrak, finantza arlokoak, aseguruenak, tasak, finantzak, entseguak, garraio eta joan- etorriekin lotutakoak bere mendeko teknikari eta laguntzaileen ordainsari eta dietekin lotutakoak eta plegu honetan aurreikusten diren gainerakoak.	Son de cuenta del contratista los gastos de formalización del contrato en el supuesto de elevación a Escritura Pública así como los gastos que la empresa deba realizar para el cumplimiento de la prestación contratada, incluidos los generales, financieros, de seguros, tasas, fianzas, ensayos, transporte y desplazamientos, honorarios y dietas del personal técnico y auxiliar a su cargo y los demás previstos en este pliego.
45.- Zehapenak: berandutzagatikoa eta beste batzuk	**45.- Penalidades: por demora y otras penalidades**
1.- Kontratazio organoak, SPKLren 192. eta 193. artikuluetan ezarriarekin bat, zehapenak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, ondoren adierazten diren ez-betetzeengatik:	1.- El órgano de contratación, con sujeción a lo establecido en los artículos 192 y 193 de la LCSP, podrá imponer penalidades a la empresa contratista por los incumplimientos que se indican a continuación:
a) Guztirako epea edo epe partzialak betetzeko berandutzagatik.	**a)** Por demora en el cumplimiento del plazo total o de los plazos parciales.
b) Prestazioa gaizki betetzeagatik; kontratazio publikoan aplikagarri diren hizkuntzari buruzko baldintzak, jokabide kodea eta erakunde zuzentasunaren esparrua edo kontratua gauzatzeko beste edozein baldintza berezi (SPKL Legearen 192. artikulua) ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik, hurrengo e) idatzi-zatian betebeharrak urratzeari dagokionez xedatutakoa salbuetsita.	**b)** Por cumplimiento defectuoso de la prestación, por incumplir, o cumplir defectuosamente, las condiciones lingüísticas, el código de conducta y marco de integridad institucional aplicable a la contratación pública o cualesquiera otras condiciones especiales de ejecución (artículo 192 de la LCSP) con la salvedad de lo dispuesto para la infracción de las obligaciones a las que refiere la letra e) siguiente.
c) Ez-betetze edo akatsezko betetzeagatik, eskaintzak baloratzeko irizpidetzat kontuan hartutako alderdiei dagokienez (SPKLren 122. artikulua).	**c)** Por incumplimiento o cumplimiento defectuoso que afecte a los aspectos tenidos en cuenta como criterio de valoración de las ofertas (artículo 122 LCSP).
d) Soldaten ordainketako ez-betetze edo atzerapen errepikatuengatik edo hitzarmen kolektiboetatik ondorioztatzen direnen azpitiko soldata-baldintzak aplikatzeagatik, aplikazio hori larri eta dolozkoa denean (SPKLren 201. artikulua).	**d)** Por incumplimientos o retrasos reiterados en el pago de los salarios o la aplicación de condiciones salariales inferiores a las derivadas de los convenios colectivos que sea grave y dolosa. (artículo 201 LCSP).
e) Lan Programa eta Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzeagatik, horiek eskagarri direnean.	**e)** Por incumplimiento del plazo para presentar el Programa de Trabajos y el Plan de Seguridad y Salud en el trabajo, cuando fueran exigibles.
f) Ingurumen, gizarte edo lan alorreko betebeharrak ez betetzeagatik, edo errepikatutako atzerapenak soldaten ordainketan eta 19. apartatuan agertutako soldata baldintza beheragokoak aplikatzeagatik, larriak eta nahita gertatutakoak baldin badira (SPKLren 201. art.).	**f)** Por incumplimiento de las obligaciones en materia medioambiental, social o laboral, o retrasos reiterados en el pago de los salarios y por la aplicación de condiciones salariales inferiores a las señaladas en el apartado 19 del cuadro de características que sean graves y dolosos (art. 201 LCSP)
2.- Aurreko puntuko ez-betetzeei lotutako zehapenen zenbatekoa honako hau izango da:	2.- La cuantía de las penalidades que corresponden por los incumplimientos del punto anterior, será la siguiente:
• a) letran jasotako arrazoiarengatik, SPKLren 193. artikuluko 3. atalean aurreikusten den zenbatekoa, non eta ezaugarrien taulako **23.2 atalak** ez duen besterik ezartzen.	• Por la causa contemplada en la letra a), la cuantía prevista en el apartado 3 del artículo 193 de la LCSP salvo que el **apartado 23.2** del cuadro de características establezca otras diferentes.
• b), c) eta d) letretan jasotako arrazoiengatik,	• Por las causas contempladas en las letras b),c), y d),

kontratuaren prezioaren % 4, non eta kontratazio organoak, arrazoi bidez, larri edo oso larri irizten ez dion ez-betetzeari, horrelakoetan % 7raino iritsi ahal izango baita larrien kasuan, eta % 10eraino oso larrienean. Ez-betetzea errepikatzea kontuan hartuko da larritasuna baloratzeko.	un 4 % del precio del contrato salvo que, motivadamente, el órgano de contratación estime que el incumplimiento es grave o muy grave, en cuyo caso podrá alcanzar hasta un 7 por ciento, en el primer caso, y hasta un 10% en el segundo. La reiteración en el incumplimiento se tendrá en cuenta para valorar la gravedad.
• e) letran jasotako arrazoiarengatik, euroa egunean kontratuko prezioko 5.000 euroko; kopuru hori, hala dagokionean, lehenbiziko ziurtagirian deskontatuko da.	• Por la causa contemplada en la letra e), una penalización diaria de 1 euro por cada 5.000 euros del precio del contrato que será descontada, en su caso, en la primera certificación.
3.- Kontratuaren ezaugarri bereziak direla eta hori behar bezala gauzatzeko beharrezko iritziz gero aurreko atalean adierazitakoez besteko zehapen batzuk finkatzeari, ezaugarrien taulako **23.2. atalean** zehaztuko dira horiek.	3.- Si atendiendo a las especiales características del contrato se considera necesario para su correcta ejecución el establecimiento de penalidades distintas a las indicadas en el apartado anterior, estas se especificarán en el **apartado 23.2** del cuadro de características.
4.- Enpresa kontratista berandutze-egoeran sartzeko ez da behar Administrazioak, aldez aurretik, betetzeko agindua ematea.	4.- La constitución en mora de la empresa contratista no precisa intimación previa por parte de la Administración.
5.- Bitartekoak atxikitzeko konpromisoa, hizkuntza baldintzak edo esleipeneko baldintza berezietako beste edozein ez betetze edo akatsez betetzeagatiko zehapenak kontratazio organoak ez-betetzea egiaztatzen duen unean ezarriko dira.	5.- Las penalidades por incumplir, o cumplir defectuosamente, el compromiso de adscripción de medios, las condiciones lingüísticas o cualesquiera otras condiciones especiales de adjudicación se impondrán en el momento que el órgano de contratación verifique el incumplimiento.
6.- Eskaintzak baloratzeko irizpidetzat kontuan hartutako alderdiei eragiten dieten ez-betetzeagatiko edo akatsez betetzeagatiko zehapenak ezarriko dira, harreraren unean, kontratazio organoak ikusten duenean, kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio, azken horrek kontratua edo eskaintzan beregain hartutako konpromisoren bat ez dituela gauzatu, betiere, horiek garrantzitsuak izan badira esleipenari begira. Bete ez diren konpromisoak adierazgarritzat joko dira, bete gabeko irizpidean kontratistak eskuratutako puntuazioaren % 50 deskontatu ostean, bere eskaintza ongien balioetsia ez bada.	6.- Las penalidades por incumplimiento, o cumplimiento defectuoso, que afecten a los aspectos tenidos en cuenta como criterio de valoración de las ofertas se impondrán cuando, al tiempo de la recepción, se constatara por el órgano de contratación que, por causas imputables a la contratista, ésta no ha ejecutado el contrato o alguno de los compromisos asumidos en su oferta, siempre que éstos hubieran sido relevantes para la adjudicación. Se considerará que los compromisos incumplidos son relevantes si, al descontarse un 50% de la puntuación obtenida por la contratista en el criterio incumplido, resultara que su oferta no habría sido la mejor valorada.
7.- Akatsezko betetzeagatiko zehapenak ezarririk ere, kontratistak legezko obligazioak izango ditu akats horiek konpontzeari dagokionez.	7.- Las penalidades por cumplimiento defectuoso se impondrán con independencia de la obligación que legalmente incumbe a la contratista en cuanto a la reparación de tales defectos.
8.- Zehapena ezartzeak ez du galera eta kalteengatiko saritik salbuesten (SPKLren 196. artikulua).	8.- La imposición de penalidad no excluye la indemnización por daños y perjuicios (artículo 196 de la LCSP).
9.- Berandutzagatiko zehapenen zenbatekoa faktura edo ziurtagirietatik kenduko da eta, hala dagokionean, bermetik, aipatu beste dokumentuetatik kentzerik ez dagoenean. Bermearen gainean gauzatzen direnean, kontratistak birjarri edo handitu egin beharko du hura, gauzatzetik 15 egun naturaleko epean; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.	9.- El importe de las penalidades por demora se deducirá de las facturas o certificaciones y, en su caso, de la garantía cuando no puedan deducirse de los mencionados documentos. Cuando se hagan efectivas sobre la garantía el contratista quedará obligado a reponer o ampliar la misma en el plazo de 15 días naturales desde la ejecución, incurriendo, en caso contrario en causa de resolución del contrato.
10.- **Lizitatzaileen arteko kolusioa** berariaz debekatuta dago Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legean (LDL) 1 artikuluan. arau-hauste **oso astuntzat** jota. Enpresari bere **negozio-**	10.- La colusión entre **los licitadores** es una práctica prohibida por el artículo 1 de la Ley 15/2007, de 3 de julio de Defensa de la Competencia (LDC), calificada como **infracción muy grave**, que

bolumen osoaren % 10eko zehapena ezartzea ekar dezake, edo, bolumen hori zehaztu ezin bada 10 milioi euro arteko zehapena. Jokabide hori enpresei edo enpresa kontrolatzen duten pertsonei ere egotzi ahal izango zaie. (LDLren 61. -63. artikuluak)	puede tener como consecuencia la imposición de una **sanción** a las empresas de **hasta el 10% de su volumen total de negocios** o de hasta 10 millones de euros cuando no sea posible determinar el volumes anterior. Dicha conducta sera también imputable a las empresas o personas que la controlan. (Artículos 61 a 63 LDC)
LEA/AVCk zehapenaren zenbatekoa kendu edo murriztu diezaioke kartel batean inplikatutako enpresa bati, erruki-eskaera bat aurkezten badu LEA/AVCren aurrean Horretarako. froga-elementuak aurkeztu beharko ditu, zehapen-espediente bat hasteko edo hari buruzko ikerketa-ekintzak gauzatzeko bidea emango dutenak. (LDLren 65. eta 66 artikuluak)	LEA/AVC podrá eximir o reducir el importe de la sanción correspondiente a la empresa implicada en un cártel que presente una solicitud de clemencia ante LEA/AVC. Para ello deberá aportar elementos de prueba que permitan la incoación de un expediente sancionador o la realización de actividades indagatorias sobre el mismo. (Artículos 65 y 66 LDC)
Era berean, legezko ordezkari bakoitzari edo akordio edo erabakian esku hartu duten zuzendaritza-organoetako kide bakoitzari 60.000 eurora arteko isuna ere jartzeko aukera egongo da.	Se podrá así mismo imponer una multa de hasta 60.000 euros a cada uno de sus representantes legales o a las personas que integran los órganos directivos que hayan intervenido en el acuerdo o decisión.
Lehiaren faltsutzea ere tipifikatuta dago **Zigor Kodearen 262. artikuluan**, honako hau xedatzen baitu: lehiaketa eta enkanteetan prezioak aldatzen dituztenek urte batetik hiru urtera bitarteko espetxe-zigorrak jaso ahal izango dituzte, hamabi hilabetetik hogeita laura bitarteko isunak, eta enkante judizialetan lizitatzeko desgaikuntza berezia, bai eta, hala badagokio, administrazio publikoekin kontratatzeko desgaikuntza berezia ere, hiru urtetik bost arteko epean.	El falseamiento de la competencia también está tipificado en el **artículo 262 del Código Penal**, donde se establece que quienes alteren los precios en concursos y subastas podrán ser sancionados con penas de prisión de uno a tres años, multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitacion especial para licitar en subastas judiciales, así como la posible pena de inhabilitación especial para contratar con las Administraciones Públicas por un periodo de tres a cinco años
Lehia faltsutzeagatik zehatutako lizitatzaileei a**dministrazio publikoekin kontratatzeko debekua** ezarri ahal izango zaie (SPKLren 71.-73. artikuluak).	Los licitadores sancionados por falseamiento de la competencia podrán ser declarados incursos en **prohibición de contratar** con las Administraciones Públicas (artículos 71 a 73 LCSP).
11.- Lehia murriztea dakarren jokabide baten kalteak pairatu dituztenek eskubidea izango dute erantzukizun zibileko kalte-ordainak eskatzeko arau-hausleek eragindako kalte-galerengatik. (LDLren 71.-81. artikuluak)	11.- Quienes resulten perjudicados por una conducta restrictiva de la competencia están legitimados para exigir una indemnización de responsabilidad civil por los daños y perjuicios causados por los infractores. (Artículos 71 a 81 LDC)
46.- Zuinketa egiaztatzea.	**46.- Comprobación del Replanteo**
1. Kontratuan zehaztutako epean, sinatzen denetik hasi eta hilabete baino luzeagoa izango ez dena, salbuespenezko kasurik ez bada, obren ardura duen Administrazioaren zerbitzuak, lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko du kontratistaren aurrean, emaitzaren akta jasoz. Akta alde biek sinatuko dute eta ale bat kontratua egin zuen organora bidaliko da. Egiaztatzeko aktan HAKLAO Legearen 140. artikuluan xedatutakoa jaso beharko da berariaz.	1. Dentro del plazo que se señale en el contrato, que no podrá ser superior a un mes desde la fecha de su formalización salvo casos excepcionales justificados, el servicio de la Administración encargada de las obras procederá, en presencia del contratista, a efectuar la comprobación del replanteo hecho previamente a la licitación, extendiéndose acta del resultado que será firmada por ambas partes interesadas, remitiéndose un ejemplar de la misma al órgano que celebró el contrato. El acta de comprobación deberá recoger expresamente lo dispuesto en los artículos 140 del RGLCAP.
2. Kontratuaren xedea lotetan banatzen bada, lanak hasiko dira lote bakoit zari dagozkion lanen exekuzio fasearen arabera, betiere zuinketa egiaztatzeko akta edo hasierako akta egin ondoren; akta hori lote bakoitzeko lanak egiten hasiko diren egunaren aurreko egunetan sinatuko da.	2. En el caso de la división en lotes del objeto del contrato, la realización de los trabajos se iniciará en función de la fase de ejecución en la que cada lote deba desarrollarlos, previa la correspondiente acta de comprobación de replanteo o acta de inicio, que deberá suscribirse los días inmediatamente anteriores al inicio de los trabajos de cada lote.
3. Presakotzat jotzen diren espedienteen kasuan, kontratua abian jartzeko epea gehienez hilabetekoa izango da, kontratua	3. En los expedientes calificados de urgentes el plazo de inicio de la ejecución del contrato no podrá exceder de un mes,

sinatu denetik.	contado desde la formalización.
4. Egiaztapenaren ondorioz frogatzen bada, zuzendaritza fakultatiboaren arabera, eta kontratistaren aldetiko erreparorik gabe, proiektua bideragarria dela eta badirela lurrak erabilgarri, hark hura abiatzeko onespena emango du, eta egikaritze- epea akta sinatu eta hurrengo egunean hasiko da zenbatzen. Kontratistak, proiektuaren bideragarritasunari buruzko erreparorik egin gabe, obraren egikaritzean eragin dezaketen bestelako ohartarazpenik egin balu, ohartarazpen horien kontuan izanik, proiektua abiatzea ala haren hasiera etetea erabakiko du, aktan bertan erabakia arrazoituz. Hasteko baimena hartan jasoko da esplizituki, eta kontratistak horren berri izan duela ulertuko da hura sinatzearekin soilik. Aurreko lerroaldean aipatzen diren inguruabarrak egiaztatzen ez direnean edo zuzendaritza fakultatiboak beharrezkotzat jotzen badu proiektatutako obrak aldatzea, haien hasiera etenik geratuko da eta horrela jasoko da aktan, Administrazioari berehala jakinarazteko betebeharra izanik, eta Administrazioak dagokion ebazpena emango du. Aldatzeko prozedura HAKLAO Legearen 141. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriko da, haren araubidea SPKLren 205. artikuluan aurreikusitakoa izanik.	4. Si el resultado de la comprobación demuestra, a juicio de la dirección facultativa y sin reserva por parte del contratista, la viabilidad del proyecto y la disponibilidad de los terrenos, se dará por aquél la autorización para su inicio, empezándose a contar el plazo de ejecución desde el día siguiente al de la firma del acta. En el caso de que el contratista, sin formular reservas sobre la viabilidad del proyecto, hubiera hecho otras observaciones que pudieran afectar a la ejecución de la obra, la dirección, consideradas tales observaciones, decidirá iniciar o suspender el comienzo de la misma, justificándolo en la propia acta. La autorización de inicio constará explícitamente en la misma, quedando notificado el contratista por el hecho de suscribirla. En aquellos casos en los que no resulten acreditadas las circunstancias a las que se refiere el párrafo anterior o la dirección facultativa de la obra considere necesaria la modificación de las obras proyectadas, quedará suspendida la iniciación de las mismas, haciéndolo constar en el acta, quedando obligado a dar cuenta inmediata a la Administración, que resolverá lo que proceda. El procedimiento de la modificación se ajustará a lo previsto en el artículo 141 del RGLCAP, siendo su régimen el previsto en el artículo 205 LCSP.
5. SPKL ren 245 b) artikuluarekin bat etorriz, kontratua eteteko nahiko arrazoi izango da obren hasiera lau hilabete baino gehiagoan eteten bada.	5. De conformidad con el artículo 245 b) LCSP será causa de resolución del contrato la suspensión de la iniciación de las obras por plazo superior a cuatro meses.
6. Hasierarik ezaren arrazoia desagertuta, kontratazio organoak dagokion ebazpena emango du, eta kontratistari jakinaraziko zaio modu frogagarrian. Egikaritze -epea obrak hasteko baimenaren akordioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen.	6. Desaparecida la causa que motivó la falta de inicio, el órgano de contratación dictará la resolución correspondiente, que se notificará fehacientemente al contratista. El plazo de ejecución empezará a contarse desde el día siguiente a la recepción de la notificación del acuerdo de autorización de inicio de las obras.
Aurrez xedatutakoa era berean aplikatuko da kontratistak erreparoak egiten dituenean zuinketa egiaztatzeko ekitaldian. Alabaina, kontratazio organoaren iritziz erreparo horiek oinarri gabeak badira, obren hasiera ez da etengo, eta, ondorioz, ez da eman beharko beste erabakirik obrak hasteko eta gauzatzeko epeen kontaketa aldatzeko.	Lo dispuesto anteriormente se aplicará igualmente cuando el contratista formulase reservas en el acto de comprobación del replanteo. No obstante, si a juicio del órgano de contratación tales reservas resultasen infundadas, no quedará suspendida la iniciación de las obras ni, en consecuencia, será necesario dictar nuevo acuerdo para que se produzca la iniciación de las mismas y se modifique el cómputo del plazo para su ejecución.
7. Zuinketa egiaztatzeko akta kontratuaren osagai izango da betearazte ondorioetarako.	7. El acta de comprobación del replanteo formará parte integrante del contrato a los efectos de su exigibilidad.
47.- Lan Programa	**47.- Programa de trabajo**
1.- Ezaugarrien koadroko 21. atalean hala ezartzen denean, enpresa kontratistak , bakarra edo lote bakoitzarena, obren Zuzendaritza fakultatiboari bere eskaintzan barneratutako Lan- programen garapen egokia helarazi beharko dio, HAKLAO Legearen 144.3. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretarako, gehienez, 15 egun balioduneko epea izango du, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita.	1. Cuando así se establezca en el **apartado 21** del cuadro de características la empresa contratista, única o de cada lote en el plazo máximo de 15 días hábiles, contados desde la formalización del contrato, deberá presentar a la Dirección facultativa de las obras un desarrollo adecuado del Programa de Trabajos incluido en su oferta, conforme a lo establecido en el artículo 144.3 RGLCAP .
2.- Lan-programan ezingo dira kontratuzko baldintzak aldatu. Dena den, guztizko epea murriztea proposatu ahal izango da,	2. El programa de trabajo no podrá introducir ninguna modificación en las condiciones contractuales, si bien podrá

betiere, administrazioak kreditu erabilgarri nahiko badu urteko zenbatekoetan aldaketa horietatik eratorritako birdoiketak egiteko eta, obraren esleipenaren aurrekontu osoa areagotzea eragin gabe.	proponer reducción en el plazo total, siempre que las disponibilidades de crédito de la Administración permitan efectuar los reajustes de anualidades que se pudieran derivar de tales modificaciones, y sin que, en ningún caso, pueda suponer incremento del presupuesto total de adjudicación de la obra.
3.- Kontratuaren arduradunak programa horren inguruko ebazpena emango du hura aurkeztu eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan, aldaketak sartzeko edo manu jakin batzuk betearazteko aukera izanik, betiere, kontratuko klausulen aurka ez badoaz.	3. El responsable del contrato resolverá sobre el programa dentro de los quince días naturales siguientes a su presentación, pudiendo imponer la introducción de modificaciones o el cumplimiento de determinadas prescripciones, siempre que no contravengan las cláusulas del contrato.
4.- Lanen programa onartzen denean, kontratuari erantsiko zaio, eta, hala badagokio, urteko zenbatekoak doituko dira.	4. Una vez aprobado el programa de trabajo, se incorporará al contrato, practicándose en su caso, el correspondiente reajuste de anualidades.
5.- Lan-programa eguneratu egin beharko du enpresa kontratistak kontratuzko baldintzak aldatzen diren bakoitzean. Hala, lan-programa hori administrazioaren aldetik jasotako argibideei jarraiki finkatu edo eguneratu eta abiaraziko du	5. El Programa de Trabajo deberá actualizarse por la empresa contratista cada vez que se modifiquen las condiciones contractuales, procediendo a la fijación o actualización y puesta al día del mismo conforme a las instrucciones que reciba de la Administración.
6.- Obrako zuzendaritzak aukera izango du ziurtagiriak geldiarazteko enpresa kontratistak lan-programa behar bezala aurkeztu arte, berandutza-interesak jasotzeko eskubiderik gabe, hala badagokio, ziurtagiri horien ordainketan atzeratzeagatik.	6. La Dirección de la obra podrá acordar no dar curso a las certificaciones hasta que la empresa contratista haya presentado en debida forma el programa de trabajo, sin derecho a intereses de demora, en su caso, por el retraso en el pago de estas certificaciones.
48.- Laneko Segurtasun eta Osasun Plana	**48- Plan de Seguridad y Salud en el Trabajo.**
1.- Enpresa kontratistak Laneko Segurtasun eta Osasun Plan bat eratu beharko du, eraikuntza-obretako segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuko 7. artikuluan ezarritakoaren arabera. Plan horren ale bikoitza aurkeztuko dio administrazioari kontratua formalizatu eta hurrengo hamaika egun naturaleko epean. Segurtasun eta osasun arloko planean ezingo dira kontratuzko baldintzak aldatu eta, bertan, beste alderdi batzuetan, hala badagozkio, aurreikusten diren azpikontratazioak zehaztu beharko dira.	1. La empresa contratista deberá elaborar un Plan de Seguridad y Salud en el trabajo, de conformidad con lo establecido en el artículo 7 del Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas en materia de seguridad y salud en las obras de construcción, que presentará por duplicado a la Administración en el plazo de once días naturales desde la formalización del contrato. El plan de seguridad y salud no podrá introducir ninguna modificación en las condiciones contractuales y en el mismo, entre otros extremos, deberán detallarse, en su caso, las subcontrataciones previstas.
Plan hori, segurtasun eta osasun gaietako koordinatzaileak edo, bestela, obra zuzendariak egindako txostenarekin batera, udaleko organo eskudunaren onarpenaren mende jarriko da obrak hasi aurretik. Horretarako, segurtasun eta osasun gaietako koordinatzaileak txostena egin beharko du, plana onartzea bidezkoa den ala ez adierazteko, harrera egunetik zazpi egun naturaleko epean. Onargarria ez balitz, zer gauza zuzendu beharko liratekeen adierazi eta horretarako epe bat ezarriko du, zuzenketen garrantzien arabera, baina inoiz ere ez zazpi egun natural baino gehiagokoa. Edozein kasutan, Laneko Segurtasun eta Osasun Plana onartzeko gehienezko epea hilabetekoa izango da kontratua formalizatzen denetik aurrera. Enpresa kontratistak aurreko lerroaldean adierazitako epeak ez betetzeagatik obrak hastea ezinezkoa balitz haiek hasteko baimena jasotzen den unean,	Dicho Plan, con el correspondiente informe de la persona coordinadora, en su defecto, por la dirección facultativa, antes del inicio de las obras, se elevará para su aprobación al órgano competente. A estos efectos, la Coordinación de Seguridad y Salud informará en el plazo de siete días naturales desde su recepción sobre la procedencia de su aprobación y, en caso negativo, indicará los puntos que deben corregirse, para lo que se asignará un plazo acorde con la importancia de las correcciones, nunca superior a siete días naturales. En todo caso el plazo máximo para la aprobación del Plan de Seguridad y Salud en el trabajo será de un mes desde la formalización del contrato. Si por incumplir la empresa contratista los plazos indicados en el párrafo anterior no fuera posible empezar las obras al recibir autorización para el inicio de las mismas, no podrá reclamar ampliación alguna de plazo

ezingo du arrazoi horrengatik epea luzatzea eskatu.	por este motivo.
2.- Koordinatzaileak edo obra zuzendaritzan eginkizun hori izendatuta daukan kideak, eskumen osoa izango du obra osoa edo lubaki jakinen batzuk behin-behingoz geldiarazteko, segurtasuneko eta osasuneko neurriak ez direla betetzen eta pertsonentzat arrisku larri edo berehalakoa dagoela ikusiz gero. Kasu horietan, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskapenari eta gainerako interesdunei jakinaraziko die berehala, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuko 14. artikuluarekin bat etorriz.	2. La persona coordinadora o la persona integrada en la dirección facultativa designada al efecto, podrán ordenar la paralización provisional de la obra en su totalidad o de los tajos, en particular, cuando observase el incumplimiento de las medidas de seguridad y salud, con riesgo inminente o grave para las personas. En estos casos, pondrá el tema en conocimiento inmediato de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social y del resto de las personas interesadas, conforme al artículo 14 del Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre.
3.- Ez da obrarik hasiko hari buruzko laneko segurtasun eta osasun plana onartu gabe. Obrak gauzatzen diren bitartean obrak geldiaraztea agintzen bada enpresa kontratistak edo azpikontratistak segurtasun eta osasun arloko neurriak bete ez dituztelako, obra edo lubakia geldirik dagoen bitartean denbora zenbatzen jarraituko da egikaritze-epeari dagokionez eta hura eteteko arrazoi izan daiteke, SPKL Legearen 193. ,195. eta 237. artikuluekin bat etorriz.	3. No se iniciará ninguna obra sin que se haya aprobado el Plan de Seguridad y Salud en el trabajo. Si en el transcurso de la obra se ordena la paralización de las obras por incumplimiento por la empresa contratista o subcontratista de las medidas de seguridad y salud, el tiempo en que permanezca paralizada la obra o el tajo seguirá computándose a los efectos de plazo de ejecución y podrá llegar a ser causa de resolución de la misma, conforme a los artículos 193,195 y 237 de la LCSP.
4.- Kontratuaren xedea sortetan zatikatuta egongo balitz, kontratistak laneko Osasun eta Segurtasun Plana egin beharko dut dagokion sortatarako.	4. En el caso de la división en lotes del objeto del contrato, la contratista deberá elaborar el Plan de Seguridad y Salud en el trabajo del correspondiente lote del que resulte adjudicataria.
49.- Entseguak eta probak	**49.- Ensayos y pruebas**
1.- Obra zuzendaritzak edozein momentuan agindu dezake bidezko iruditzen zaizkion material eta obra unitateen saiakuntzak, probak eta azterketak egin daitezela.	1.- La Dirección facultativa de las obras podrá ordenar en cualquier momento que se verifiquen los ensayos, pruebas y análisis de materiales y unidades de obra que en cada caso juzgue pertinentes.
2.- Obra zuzendaritzak aukera izango du, berez edo ordezkaritzan, erabili beharreko materialak aukeratzeko, eta nola prestatzen diren eta nola saiatzen direnikusteko.	2.- La Dirección de Obra podrá, por sí o por delegación elegir los materiales que hayan de emplearse, así como presenciar su preparación y ensayo.
3.- Obra zuzendaritzak edo lankide duen pertsonalak erabakiko du in situ egin beharreko entseguen kokapena eta laborategiko entsegua egiteko zein lagin hartuko diren.	3.- La Dirección de Obra o su personal colaborador, determinará la ubicación de los ensayos a realizar in situ, así como de las muestras que deban cogerse para su ensayo en un laboratorio.
4.-Kontzeptu horrengatik sortzen diren gastuak esleipendinak ordaindu beharko ditu.	4.- Los gastos que se originen por este concepto deberán ser abonados por la adjudicataria.
50.- Trafikoan eraginak	**50.- Afecciones al tráfico**
Edozein kasutan, enpresa kontratistak obren ondorioz ibilgailuen trafikoan izango diren eragin edo etenaldien berri eman beharko dio derrigorrez Trafikoko Gipuzkoako Lurralde Bulegoari.	En todo caso, la empresa contratista estará obligada a comunicar a las diversas autoridades con competencias en materia de tráfico las afecciones o interrupciones del tráfico rodado a que las obras obliguen.
51.- Seinaleztapenak	**51.- Señalizaciones**
1.- Enpresa kontratistak bere kontu eta kargura instalatu beharko ditu obren sarbidea adierazteko eta lan-eremuan nahiz inguruan trafikoa erregulatzeko beharrezkoak diren seinaleak, eta baita arriskutsuak izan daitezkeen gune guztietan edo obren eragina jasotzen duten haietan ere. Ildo horretan, Ministerioaren 1987ko abuztuaren 31ko Agindua bete beharko da,	1.- La empresa contratista deberá instalar por su cuenta y a su costa las señales precisas para indicar el acceso a las obras y la regulación del tráfico en la zona de trabajos y sus inmediaciones así como en todos los puntos de posible peligro o afectados por la marcha de aquéllos. Se dará cumplimiento en este aspecto a lo dispuesto en la Orden Ministerial de 31 de

herriguneetatik kanpoko obretako seinaleak eta tangak ipintzeari, eta obren babesari, garbitasunari eta bukaerari buruzkoa.	agosto de 1987 sobre señalización, balizamiento, defensa, limpieza y terminación de obras fijas en vías fuera de poblado.
2.- Bide seinaleak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. - Hizkuntza arloko betekizun hori ez betetzeak berekin ekarriko du SPKL Legearen 192. artikuluan aurreikusitako zigorra ezartzea, kontratuko xede den prestazioa akatsekin gauzatzeagatik. Zigorra, bete ez denaren larritasunaren araberakoa izango da, proportzionaltasunaren irizpideari jarraiki.	2.- Las señalizaciones se realizarán en euskera y en castellano. El incumplimiento de este requisito lingüístico dará lugar a la imposición de la penalidad prevista en el artículo 192 de la LCSP, por ejecución defectuosa de la prestación objeto del contrato. La penalidad será conforme a la gravedad del incumplimiento, de acuerdo con un criterio de proporcionalidad.
3.- Hizkuntzaren eta seinalizazio irudien erabilera ez-sexista zainduko da.	3.- Se cuidará un uso no sexista del lenguaje y de las imágenes en las señalizaciones.
4.- Enpresa kontratistak, gainera, obren Zuzendaritza fakultatiboaren aldetik seinale osagarriak instalatu eta dagoeneko instalatuta daudenak aldatzeari buruz idatziz jasotzen dituen aginduak bete beharko ditu.	4.- La empresa contratista cumplirá además cuantas órdenes reciba por escrito de la Dirección facultativa de las obras acerca de la instalación de señales complementarias y modificación de las ya instaladas.
5.- Obra zuzendariak obrarekin lotuta jartzekoak diren seinaleak onartu arte ezingo da hasi inolako obrarik. Obrak martxan daudela, seinaleek arauzko aginduak ez dituztela betetzen uste badu, obra zuzendariak seinaleak zuzendu arte lanak geldiarazteko agindu dezake. Neurri horien ondorioz obretan gertatzen diren atzerapenak enpresa kontratistari egotzi ahalko zaizkio.	5.- No se iniciará ninguna obra sin que se haya aprobado por la Dirección de Obra la señalización correspondiente. Si durante el transcurso de la obra la señalización no cumpliera las prescripciones reglamentarias, a juicio de la Dirección de Obra, ésta podrá ordenar la paralización de los trabajos hasta que se proceda a la corrección de la señalización. Los retrasos que se produzcan en las obras por causa de estas medidas, serán imputables a la empresa contratista.
6.- Zirkulazioaren segurtasunean eragina izan dezakeen edozein gorabehera gertatzen delarik, komenigarria izango litzateke berau seinaleztatu eta errepideko erabiltzaile ezberdinei horretaz ohartaraztea, hala badagokio, haren erabilera mugatzeko aukera izanez Obrako Zuzendaritzaren arabera.	6.- Cualquier incidencia que pueda afectar a la seguridad de la circulación deberá ser convenientemente señalizada y anunciada a las diversas personas usuarias de la carretera, pudiendo en su caso limitarse su uso de acuerdo a la Dirección de Obra.
52.- Eragindako zerbitzuak	**52.- Servicios afectados**
1.- Atxikitako zerbitzuak proiektuan aurreikusita dagoen bezala berriro jartzea kontratuaren parte da, eta hor sartu ahal izango dira obra garaian agertu litezkeen beste guztiak ere, proiektuan aurreikusi gabe egonarren.	1.- La reposición de servicios afectados se considera parte del contrato con arreglo a las previsiones del propio Proyecto y podrá extenderse a la totalidad de los que aparezcan en obra aunque no estuvieran previstos en aquél.
2.- Esandakotik salbuesten dira Iberdrola, SA, Telefónica de España, SAU, Euskaltel, SA eta Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, SA SME enpresei dagozkien zerbitzuak, eta baita gas- hornitzaile diren enpresei dagozkienak ere. Horiek beren kabuz garatuko dituzte dagozkion proiektu eta obrak. Halaber, salbuetsita geratzen dira, hala badagokio, Administrazioak enpresa titularren bidez edo hirugarren aldeekin kudeatzea lehenesten dituen haiek.	2.- Se exceptúan de lo dicho los servicios correspondientes a las empresas Iberdrola, S.A., Telefónica de España, S.A.U, Euskaltel, S.A. y Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, S.A. S.M.E. así como a las empresas suministradoras de gas, que desarrollarán por sí mismas los correspondientes proyectos y obras, así como aquellos que, en su caso, estimara preferible gestionar la Administración a través de de las empresas titulares o terceras partes.
3.- Enpresa kontratistak bere lan-programa moldatu eta koordinatu egin behar du atxikitako zerbitzuak kendu eta berriz jartzearen eskakizunetara, bai kontratuan sartuta dauden zerbitzuei, bai aipatu diren enpresenei dagokienez.	3.- La empresa contratista vendrá obligada a adaptar y coordinar su programa de trabajos con la retirada y reposición de los servicios afectados, tanto los que entran dentro del contrato como los correspondientes a las citadas empresas.
4.- Zerbitzua enpresa kontratistak birjartzen duenean, lanen ordainketa Proiektuko obra- unitateen bidez egingo da edo, halakorik ez balego, legez ezarritako prozeduraren arabera finkatutako prezio berrien bidez.	4.- Cuando la reposición de servicios la realice la empresa contratista, el abono de los trabajos se realizará a través de las correspondientes unidades de obra del Proyecto o, si no existieran, por lo nuevos precios fijados conforme al procedimiento legalmente establecido.

5.- Ohiko obra-unitateetan banakatzekoak ez diren esku-hartze bitxi eta ezohikoen kasuan, Administrazioak aukera izango du fakturazioa hirugarrenen aldetik egiteko, enpresa kontratistak abonatuz eta Administrazioak ordainduz, hori guztiori plegu honetako 59. Klausulan aurreikusitakoarekin bat etorriz.	5.- Tratándose de actuaciones peculiares o atípicas que no se presten a desglose en unidades de obra convencionales, la Administración se reserva la posibilidad de facturación por terceras partes, abono por la empresa contratista y reembolso por la Administración, todo ello conforme a lo previsto en la Cláusula 59 de este pliego.
53.- Kalte-galerak hirugarren aldeei	**53- Daños y perjuicios a terceras partes.**
1.- Enpresa kontratista kontu handiz ibiliko da hirugarren aldeei kalteak eta galerak eragitea ekiditeko, bere erantzukizun esklusiboa izango delarik obrak egikaritzetik, zuzenean edo zeharka, eratortzen direnak. Enpresa kontratistaren betebeharra izango da kontratua betetzeko lanen ondorioz kontratistaren beraren edo haren mendeko langileen edo bitartekoen eraginez gertatutako kalte eta galera guztien ordainak ematea. Kalte edo galerak administrazioak emandako aginduren baten ondorioz zuzenean eta berehala gertatuak badira, legeetan ezarritako mugen barruan izango du erantzukizuna kontratistak. Enpresa batek baino gehiagok kontratua elkarrekin betetzen badute, modu solidarioan erantzun beharko diote klausula honetan aipatzen den erantzukizunari.	1. La empresa contratista extremará sus precauciones para evitar daños y perjuicios a terceras partes siendo de su exclusiva responsabilidad cuántos puedan derivarse directa o indirectamente de la ejecución de las obras. Será obligación de la empresa contratista indemnizar todos los daños y perjuicios que se causen, por sí o por personal o medios dependientes del mismo, a terceras partes como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato. Cuando tales daños y perjuicios hayan sido ocasionados como consecuencia inmediata y directa de una orden de la Administración será responsable de la misma dentro de los límites señalados en las leyes. Si el contrato se ejecutara de forma compartida con más de una empresa, todas responderán solidariamente de las responsabilidades a que se refiere esta cláusula.
2.- Enpresa esleipendunak aseguru-kontratu bat izango du erabilgarri uneoro hirugarren aldeei, pertsona nahiz gauzei, eragindako aipatu kalte eta galera horiei erantzun ala izateko, eta baita kontratua indarrean den bitartean Administrazioari edo haren mendeko langileei eragindako kalteak estaltzekoa ere. Gutxieneko estaldura plegu honen hasieran agertzen den ezaugarrien taulako **24. atalean** ezarritako zenbatekoarekin bat etorriko da.	2. La empresa adjudicataria dispondrá en todo momento de un contrato de seguro para responder de los citados daños y perjuicios a terceras partes, tanto a personas como a cosas, así como por daños producidos a la Administración, o al personal dependiente de la misma durante la vigencia del contrato con una cobertura mínima por el importe establecido en el **apartado 24** del cuadro de características que figura al comienzo de este pliego.
3.- Aseguru polizak indarrean egon beharko du, gutxienez kontratuak irauten duen bitarte guztian (luzapenak barne), eta berme aldiak ere irauten duen bitartean (luzatzen bada ere).	3. El período de mantenimiento de la vigencia de dicha póliza será, como mínimo, el periodo total de duración del contrato (prórrogas incluidas, en su caso) y del correspondiente plazo de garantía (ampliaciones incluidas, en su caso).
54.- Kalteak obratan	**54- Daños en las obras.**
1.- Bere jarduera garatzeko derrigorrezkoak diren aseguruez gain, enpresa kontratistak egindako obretan eta egiten ari direnetan gerta daitezkeen kalteak estaltzeko aseguru bat egin beharko du bere kontura, aseguratu modura Donostiako Udala barneratuz. Aseguru horren gutxienezko zenbatekoa “ezaugarrien taulan" ezarritakoa izango da. Bertan, onuradun gisa, ezbeharren bat gertatzekotan, kontratazio organoa agertu beharko da. Aseguru horrek bere baitan hartu behar ditu estaldura hauek: a) Sute, tximista, leherketa, lapurreta, espoliazio, talka, trebetasun falta, zabarkeria, egintza bandaliko eta asmo gaiztoko arriskuetatik, izadiaren arriskuetatik edo aipatu gabeko beste edozein arriskutatik eratorritako kalte eta galera materialak. b) Berme gehigarriak, ondorengoek eragindakoak: ▪ Diseinu akatsa, fabrikatzailearen arriskua.	1. La empresa contratista, además de cuantos otros seguros sean obligatorios para el desarrollo de su actividad, está obligado a concertar a su costa, un seguro que cubra los daños que puedan sufrir las obras realizadas y en curso de realización, incluyendo como asegurado al Ayuntamiento de San Sebastián, por el importe mínimo establecido en el “cuadro de características”, debiendo figurar como beneficiario, en caso de siniestro, el órgano de contratación. Las coberturas serán las siguientes: a) Daños y pérdidas materiales derivados de los riesgos de incendio, rayo, explosión, robo, expoliación, impacto, impericia, negligencia, actos vandálicos y malintencionados, de los riesgos de la naturaleza o cualquier otro riesgo no denominado. b) Garantías adicionales derivadas de: • Error de diseño, riesgo de la empresa fabricante.

▪ Aparteko orduek, obra hondakinak kentzeak, eraisketa lanak egiteak, agintariek hartutako neurriek eta abarrek eragindako gastuak. ▪ Lehendik dauden ondasunei eragindako kalteak,sabotajea. ▪ Greba, matxinada eta kommozio zibila.	• Gastos por horas extraordinarias, desescombrado, demolición, medidas adoptadas por la autoridad, etc. • Daños a bienes preexistentes, sabotaje. • Huelga, motín y conmoción civil.
2.- Eraikuntza aldiko edozein arrazoik eragindako galera edo kalte guztiak aseguratuta geldituko dira, baita eraikuntza aldian nahiz beranduago obra kontratuan zehaztutako betebeharrak zuzen betetzeko egindako lanen ondorioz eragin daitezkeen kalte eta galerak ere.	2. Quedará asegurada toda pérdida o daño que resulte de una causa cuyo origen se encuentre en el período de construcción, así como la que se ocasione en esta etapa o posteriores como consecuencia de la ejecución de trabajos llevados a cabo con el fin de dar correcto cumplimiento a las obligaciones estipuladas en el contrato de obras.
3.- Polizak indarrean egon beharko du, gutxienez kontratuak irauten duen bitarte guztian (luzapenak barne, halakorik bada), eta berme aldiak ere irauten duen bitartean (luzatzen bada ere).	3. El período de mantenimiento de la vigencia de dicha póliza será, como mínimo, el período de duración del contrato (prórrogas incluidas, en su caso) y el establecido como período de garantía (ampliaciones incluidas, en su caso).
4.- Obra hartzeko garaian egiaztatu beharko da polizak beste urtebeteko indarraldia duela, obrak hartzen diren egunetik aurrera, eta aseguruaren prima guztiz ordainduta dagoela.	4. En la recepción de la obra, deberá acreditarse que la póliza tiene vigencia durante un año más, contado desde la fecha de recepción y que la prima correspondiente se encuentra totalmente pagada.
55.- Kontratuaren aldaketak	**55.- Modificaciones del contrato**
1.- Kontratua burutzen denean, kontratazio organoak bakar-bakarrik interes publikoagatiko aldaketak sartu ahal izango ditu bertan, horrela aurreikusten bada ezaugarrien taulako **22. atalean**, edo SPKLren 205. artikuluan ezarritako balizkoetan eta mugekin.	1.- Una vez perfeccionado el contrato, el órgano de contratación sólo podrá introducir modificaciones en el mismo por razones de interés público, cuando así se prevea en el **apartado 22** del cuadro de características, o en los supuestos y con los límites establecidos en el artículo 205 de la LCSP.
2.- Kontratuaren xedean aldaketak sartzea beharrezkoa suertatzen denean, kontratuaren arduradunak beharrezko proposamena idatziko du, proposamena justifikatu, deskribatu eta baloratzen duten dokumentuekin batera. Administrazioak aldaketa onartu aurretik, enpresa kontratistari entzunaldia eman beharko dio.	2.- Cuando sea necesario introducir modificaciones en el contrato, la responsable del contrato redactará la oportuna propuesta, integrada por los documentos que justifiquen, describan y valoren aquella. La aprobación de la modificación por la Administración requerirá la previa audiencia de la empresa contratista.
3.- Ezaugarrien taulako **22. atalean** aurreikusitako aldaketak eta SPKLren 205. artikuluan jasotako kontratu aldaketarako balizkoetan egokitzen direnak, bakarka edo elkarrekin kontratuaren hasierako prezioaren % 20ko aldaketa gainditzen ez duen aldaketa eragiten dutenean –BEZa kanpo–, nahitaezkoak izango dira, betiere, kontratistarentzat, eta kontratazio organoak erabaki beharko ditu, SPKLren 191. artikuluan eta HAKLEOren 102. artikuluan aurreikusitako prozedura aurrez tramitatuta, eta dokumentu administratiboan formalizatu beharko dira, SPKLren 153. artikuluan adieraziarekin bat, hala dagokionean behin betiko bermea aurrez birdoituta.	3.- Las modificaciones previstas en el **apartado 22** del cuadro de características y aquellas otras que encajen en los supuestos de modificación del contrato recogidas en el artículo 205 de la LCSP cuando impliquen, aislada o conjuntamente, una alteración en su cuantía que no exceda del 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido, serán en todo caso obligatorias para la contratista y deberán ser acordadas por el órgano de contratación, previa tramitación del procedimiento previsto en el artículo 191 y 207 de la LCSP y 102 RGLCAP y formalizarse en documento administrativo con arreglo a lo señalado en el artículo 153 de la LCSP, previo reajuste de la garantía definitiva en su caso.
4.- Ez kontratistak, ez kontratuaren arduradunak, ezingo dute behar bezala onartu gabeko aldaketarik sartu edo egin. Administrazioaren kontratazio organo eskudunak behar bezala baimendu gabeko kontratu aldaketek enpresa kontratistaren ardura eragingo dute. Horrek, hala dagokionean, aldaketak izan dituzten alderdiak berregin beharko ditu, inolako ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.	4.- Ni la contratista ni la responsable del contrato podrán introducir o ejecutar modificaciones que no estén debidamente aprobadas. Las modificaciones del contrato que no estén debidamente autorizadas por el órgano de contratación competente la Administración originarán responsabilidad de la empresa contratista, la cual estará obligada, en su caso, a rehacer la parte afectada por aquellas sin derecho a abono

	alguno.
5.- Kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak gaurkotu egin beharko du laneko programa.	5.- Cada vez que se modifiquen las condiciones contractuales, la contratista queda obligada a la actualización del programa de trabajo.
55.1.- Aldaketa aurreikusiak	**55.1.- Modificaciones previstas**
1.- Kontratu hau aldatu ahal izango da, horrela aurreikusi bada, baldintza-agiri honetako ezaugarrien taulako **22. atalean** zehazten denaren arabera, betiere hartan finkatutako baldintza, irismen eta mugekin, eta aldaketek hasierako prezioaren % 20tik gora egin gabe.	1.- El presente contrato podrá modificarse si así se ha previsto, según lo detallado en el **apartado 22** del cuadro de características del presente pliego en las circunstancias, con las condiciones, alcance y los límites allí establecidos, que no podrán superar el veinte por ciento del precio inicial.
2.- Aldaketarako arrazoi bat baino gehiago aurreikusiz gero, jaso egin beharko dira horietako bakoitzeko zertzeladak, baldintzak, irismena eta mugak.	2.- En caso de prever varias causas de modificación las circunstancias, condiciones, alcance y límites deberán quedar referidos a cada una de ellas.
3.- Aurreikusten diren aldaketek ezingo dute, inolaz ere, kontratuan aurreikusi gabeko prezio unitario berririk finkatzea eragin.	3.- En ningún caso las modificaciones previstas pueden suponer el establecimiento de nuevos precios unitarios no previstos en el contrato.
55.2.- Aldaketa aurreikusi gabeak	**55.2.- Modificaciones no previstas**
1.- Ezaugarrien taulako **22. atalean** aurreikusitakoez bestelako aldaketak sartu ahal izango dira, interes publikoko arrazoiak direnean, bakar-bakarrik behar beste justifikatzen denean SPKLren 205.2 artikuluan jasotzen diren balizko tasatuetako bat edo batzuk gertatzen direla, eta betiere aldaketa horiek mugatzen badira eragile izan duten arrazoi objektiboari erantzuteko ezinbesteko aldaketei erantzutera.	1.- Sólo podrán introducirse modificaciones distintas de las previstas en el **apartado 22** del cuadro de características por razones de interés público, cuando se justifique suficientemente la concurrencia de alguno o varios de los supuestos tasados del artículo 205.2 de la LCSP y que se limiten a introducir las variaciones estrictamente indispensables para responder a la causa objetiva que la haga necesaria.
2.- SPKLren 205. artikuluan ezarriaz gain, balizko horietan kontratua aldatzeari ekin aurretik entzunaldia eman beharko zaio zehaztapen teknikoak idatzi dituen pertsonari, zehaztapen horiek prestatu dituena kontratazio organotik kanpoko hirugarren pertsona bat izan denean zerbitzu kontratu baten indarrez, hain zuzen 3 egun naturaletik beherako epean formula ditzan egoki deritzen kontsiderazioak.	2.- Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 205 de la LCSP, antes de proceder a la modificación del contrato en estos supuestos, deberá darse audiencia a la persona redactora de las especificaciones técnicas, si estas han sido preparadas por una tercera persona ajena al órgano de contratación en virtud de un contrato de servicios, para que, en un plazo no inferior a 3 días naturales, formule las consideraciones que tenga por convenientes.
3.- Ez dira obrako kontratuko aldaketatzat hartuko 242. artikuluko 4. atalean (in fine) ezarritakoak.	3.- No tendrán consideración de modificaciones del contrato de obras las establecidas en el apartado 4 *in fine* del artículo 242.
56.- Obren etetea.	**56.- Suspensión de las obras.**
1.- Administrazioak kontratuaren egikaritzea etetea adostu ahalko du, interes publikoko arrazoiak direla medio. Era berean, kontratua etengo du SPKLren 198.5. artikuluan adierazitako inguruabarra emango balitz. Kontratua eteteari dagokionez, Estatuko obren kontrataziorako SPKLren 208. artikuluan xedatutakoa nahiz HAKLAO Legearen 103. artikuluan.	1.- La Administración, por razones de interés público, podrá acordar la suspensión de la ejecución del contrato. Igualmente, procederá la suspensión del contrato si se diese la circunstancia señalada en el artículo 198.5 de la LCSP. A efectos de la suspensión del contrato se estará a lo dispuesto en el artículo 208 de la LCSP así como en el artículo 103 del RGLCAP.
2.- SPKLren 208. artikuluarekin bat etorriz, Administrazioak adostuko balu kontratua etetea edo etete hori gertatuko balitz SPKLren 198.5. artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik, Administrazioak kontratistak jasandako kalte eta galerak ordainduko dizkio.	2.- De conformidad con el artículo 208 LCSP, si la Administración acordase la suspensión del contrato o aquella tuviere lugar por la aplicación de lo dispuesto en el artículo 198.5 LCSP, la Administración abonará al contratista los daños y perjuicios efectivamente sufridos por éste.
57.- Ordainketak, neurketak eta balorazioa.	**57.- Abonos, mediciones y valoración.**

1.- Kontratistari soilik proiektuko dokumentuekin eta, hala badagokio, zuzendaritza fakultatiboaren eskutik idatziz jasotako aginduekin bat etorriz egindako obra ordainduko zaio.	1.- Sólo se abonará al contratista la obra que realice conforme a los documentos del proyecto y, en su caso, a las órdenes recibidas por escrito de la dirección facultativa.
2.- Burututako lanak obrako zuzendaritzak neurtuko ditu, eta kontratista neurketa horietan egon daiteke. Dimentsioak edo ezaugarriak ondoren ezkutuan gelditukо diren obra eta obra-zatietarako, kontratistak zuzendaritzari nahikoa aurrerapenez ohartaraziko dio, neurketak egin eta datuak hartu ahal izateko. Ildo horri eutsiz, definitzen dituzten planoak altxatuko ditu. Adostasuna kontratistak edo ordezkariak sinatu beharko du. Aldez aurretik ohartarazpenik ez badago (kontrakoa egiaztatzea kontratistari dagokio), gaiari buruz administrazioak hartutako erabakiak onartu beharko ditu.	2.- La medición de los trabajos efectuados se llevará a cabo por la dirección de la obra, pudiendo el contratista presenciar la realización de las mismas. Para las obras o partes de obra cuyas dimensiones y características hayan de quedar posterior y definitivamente ocultas, el contratista está obligado a avisar con la suficiente antelación, a fin de que la dirección pueda realizar las correspondientes mediciones y toma de datos, levantando los planos que las definan, cuya conformidad suscribirá el contratista. A falta de aviso anticipado, cuya prueba corresponde al contratista, queda éste obligado a aceptar las decisiones de la Administración sobre el particular.
3.- Obra mota bakoitzerako, neurketa-unitate modura, proiektuko neurketen ikerketetako dagokion epigrafean adierazitakoa hartuko da. Neurketa amaitu ondoren, zuzendaritza fakultatiboak gauzatutako obra balioetsiko du, unitate bakoitzean aurrekontuaren kasuan kasuko unitate-prezioa edo dagokion kontraesanezkoa aplikatuz, pleguetan obra akastunak, metatutako materialak, partida altxatuak eta obran ipinitako lantaldearen konturako ordainketak ordaintzeko aurreikusitakoa kontuan hartuz.	3.- Para cada clase de obra se adoptará como unidad de medida la señalada en el epígrafe correspondiente de los estudios de mediciones del proyecto. Terminada la medición, por la dirección facultativa se procederá a la valoración de la obra ejecutada, aplicando a cada unidad el precio unitario correspondiente del presupuesto o el contradictorio que proceda, teniendo en cuenta lo prevenido en los pliegos para los abonos de obras defectuosas, materiales acopiados, partidas alzadas y abonos a cuenta del equipo puesto en obra.
Balioespenaren emaitzari, aurreko lerroaldean adierazitako moduan lortua, HAKLAO Legearen 131. artikuluan adierazitako portzentajeak gaineratuko zaizkio, aurrekontua osatzeko hartuak, eta hortik ateratzen den zifra esleipen-koefizientearekin biderkatuko da. Modu horretan hileko zerrenda balioetsia eskuratuko da, hileko ziurtapena ekarriko duena, Administrazioak igorriko duena dagokion hileko hurrengo hamar egunetan. Haatik, eta ezaugarrien taulako **10. atalean** horrela adierazten denean, bestelako aldizkakotasun bat ezarri ahal izango da ziurtapen horietarako.	Al resultado de la valoración, obtenido en la forma expresada en el párrafo anterior, se le aumentarán los porcentajes señalados en el artículo 131 del RGLCAP adoptados para formar el presupuesto y la cifra que resulte se multiplicará por el coeficiente de adjudicación, obteniendo así la relación valorada mensual que dará lugar a la certificación mensual, la que se expedirá por la Administración en los diez días siguientes al mes que corresponda. No obstante y cuando así se indique **apartado 10** del cuadro de características podrá establecerse otra periodicidad para las certificaciones.
Ondorio horietarako, SPKL Legearen hogeita hamabigarren xedapen gehigarriko bigarren atalarekin bat etorriz, kontratistak aurkeztutako faktura bakoitzean kontabilitate publikoan eskumenak dituen administrazio-organoaren nahiz kontratazio organoaren eta hartzailearen identifikazioa jaso beharko du, ezaugarrien taulako 1. Atalean xedatutakoaren arabera.	A estos efectos, de conformidad con el apartado dos de la disposición adicional trigésima segunda de la LCSP, el contratista deberá hacer constar en cada factura presentada, la identificación tanto del órgano administrativo con competencias en materia de contabilidad pública, como del órgano de contratación y del destinatario, según lo dispuesto en el apartado 1 del cuadro de características.
4.- Administrazioak obra ziurtapena onartu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan ordaindu behar dio kontratistari haren prezioa eta, berandutzen bada, hogeita hamar eguneko epe hori amaitzen denez geroztik sortutako berandutza interesak eta kobraketa gastuen kalte- ordaina ere ordaindu beharko dizkio, horretan aplikatu beharrekoa abenduaren 29ko 3/2004 Legea, merkataritzako eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena, delarik. Interesak kobratzen hasteko epea hasitzat emateko, kontratistak erregistro administratiboan aurkeztuak izan beharko ditu fakturak, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako moduan, epe eta forma egokian, hogeita hamar eguneko epean salgaiak egiaz entregatutako egunetik edo zerbitzua ematen denetik zenbatzen hasita.	4. La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las

	mercancías o la prestación del servicio.
5.- 210. artikuluko 4. atalean eta 243. artikuluko 1. atalean ezarritakoaren kalterik gabe, Administrazioak obra-ziurtapenak edo kontratuan helarazitako ondareei edo emandako zerbitzuei buruz xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko dokumentuak onartu beharko ditu ondareak egiaz entregatu edo zerbitzuak eman eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan.	5. Sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210 y en el apartado 1 del artículo 243, la Administración deberá aprobar las certificaciones de obra o los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato.
6.- Era guztietara, kontratistak ez badu, faktura elektronikoari buruz indarrean den araudian ezarritako moduan, erregistro administratiboan faktura aurkezteko duen hogeita hamar eguneko epea betetzen, interesak ez dira hasiko sortzen, harik eta faktura erregistroan aurkeztu eta hogeita hamar egun igaro arte, eta baldin eta bitartean administrazioak ontzat eman ez badu, hala badagokio, eta ordaindu ez badu.	6.- En todo caso, si la empresa contratista incumpliera el plazo de 30 días naturales para presentar la factura ante el registro administrativo, el devengo de intereses no se iniciará hasta transcurridos 30 días naturales desde la fecha de presentación de la factura en el registro correspondiente, sin que la Administración haya aprobado la conformidad, si procede, y efectuado el correspondiente abono.
Hala ere, kontratuan agintzen duten urtekoak baino zenbateko handiagoa eskatzen duten ziurtapenetan, legezko epea ez da kontatuko ziurtapena onartzen denetik aurrera, baizik eta hitzartutako baldintzen eta onartutako lan-programen arabera izan beharko lukeen geroagoko dataren arabera.	Ello no obstante, en las certificaciones que se extiendan excediendo del importe de las anualidades que rijan en el contrato no se contará el plazo legalmente previsto desde la fecha de su aprobación, sino desde aquélla otra posterior en la que con arreglo a las condiciones convenidas y programas de trabajo aprobados deberían producirse.
7.- Igortzen diren ziurtapenek eta kontratistari ordaintzen zaizkion zenbatekoek konturako abonutzat hartuko dira eta ez dute, inolaz ere, suposatuko hartzen dituzten obren onarpen edo harrera, gauzatutako obren azken ziurtapenaren zain eta kontratuaren likidazioaren kontura. Kontura abonu horietan 198. artikuluko 2. ataleko bigarren lerroaldean xedatutakoa beteko da.	7. Las certificaciones que se expidan y las cantidades que se abonen al contratista tendrán el carácter de abonos a cuenta y no supondrán en forma alguna aprobación y recepción de las obras que comprenden, a resultas de la certificación final de las obras ejecutadas y a cuenta de la liquidación del contrato. En estos abonos a cuenta se observará lo dispuesto en el párrafo segundo del apartado 2 del artículo 198.
8.- Aurrekontuan oroharreko prezioan adierazitako partidak, baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako moduan ordainduko dira. Halakorik ez bada, HAKLAO Legearen 154. artikuluan xedatutakoa betekoda.	8. Las partidas señaladas en el presupuesto a tanto alzado, se abonarán conforme se indica en el pliego de prescripciones técnicas particulares. En su defecto, se estará a lo dispuesto en el artículo 154 del RGLCAP.
9.- Justifikatzekoak diren oroharreko partidak ordaintzeko, lanak ez direnean obra unitatetan adierazteko egokiak, Administrazioak azter dezake beste norbaitek fakturatzea, obren zuzendaritza fakultatiboak horretarako baimena eta babesa aurretik eman badu. Fakturatutako zenbateko likidoa kontratistak ordainduko du, eta horren ordaina Administrazioak emango dio hurrengo hileko obra ziurtapenean sartuz. Zenbateko horri gastu orokorren kontzeptuan %13 gehituko zaio, eta ez zaio beste inolako gehikuntzarik egingo, ezta esleipen beherapena aplikatuko ere..	9. Para el abono de las partidas alzadas a justificar, y cuando las actuaciones no se presten a la aplicación de unidades de obra, podrá considerarse por la Administración la posibilidad de facturación por terceras partes previamente autorizada y respaldada por la dirección facultativa de las obras. El importe líquido facturado será abonado por la empresa contratista y reembolsado por la Administración incluyéndolo en la certificación de obra que se expida al mes siguiente. Dicho importe se incrementará aplicando un porcentaje del 13 por 100 en concepto de gastos generales y no estará sujeto a ningún otro incremento ni a la baja de adjudicación.
10.- Ezingo da inolako ziurtapenik egin, beraz ezta ordainketarik egin ere, kontratua sinatu artean.	10. No podrá emitirse ninguna certificación y, en consecuencia, realizarse ningún pago hasta que se haya formalizado el contrato.
11.- Kontratistak, legez ezarritako bideren batetik, hirugarren bati laga diezaioke kontratuaren prezioa kobratzeko eskubidea, baina, lagapenak ondorioak izango baditu eta Administrazioak lagapen hartzaileari ordaintzeko agindua emango badu, modu frogagarrian jakinarazi beharko zaio lagapen akordioa.	11. La empresa contratista podrá ceder a una tercera parte, por cualquiera de los medios legalmente establecidos, su derecho a cobrar el precio del contrato, pero para que dicha cesión surta efectos, y la Administración expida el mandamiento de pago a favor de la entidad cesionaria, es preciso que se le notifique fehacientemente a ésta última el acuerdo de cesión

12.- Kontratistak, plegu honetako ezaugarrien taulako **25. atalean** adierazitako baldintzetan, aurrez idatzizko eskaera egin ostean, metatuak dauden materialengatik eta instalazio edo ekipoengatik kontura ordainketak jasotzeko eskubidea izango du, horretarako HAKLAO Legearen 155etik 157rako artikuluetan zehazten den moduan eta horietan adierazitako bermeekin. Zenbatekoa eta baldintzak aipatutako **25. atalean** jasotzen dira. Ordainketa horiek atal horretan zehazten den bermearen prestazioaren bitartez egongo dira aseguratuta.	12. El contratista, en las condiciones señaladas en el **apartado 25** del cuadro de características del presente pliego los respectivos pliegos, previa petición escrita, tendrá derecho a percibir abonos a cuenta por materiales acopiados y por instalaciones o equipos, en la forma y con las garantías que, a tal efecto determinan los artículos 155 a 157 del RGLCAP. La cuantía y condiciones se encuentran señaladas en el citado **apartado 25**. Los referidos pagos serán asegurados mediante la prestación de la garantía que se especifica en dicho apartado.
60.- Obraren exekuzioa amaitu dela ohartaraztea	**58.- Aviso de terminación de la ejecución de la obra.**
Kontratistak, ezaugarrien taulako **27. atalean** aurreikusten den denborarekin, kontratua amaitu edo egikaritzeko aurreikusitako dataren berri emango dio obrako zuzendaritzari, haren harrera egin dadin. Jakinarazpen hori izapidetzeko prozedura eta epeak, harrera eta Kontu Hartzailetzari egiteko jakinarazpenerako ordezkariaren izendapena, HAKLAO Legearen 163. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko dira.	El contratista, con la antelación prevista en el **apartado 27** del cuadro de características, comunicará por escrito a la dirección de la obra la fecha prevista para la terminación o ejecución del contrato, a efectos de que se pueda realizar su recepción. El procedimiento y plazos para la tramitación de esta comunicación, la designación de representante para la recepción y la comunicación, a la Intervención, se regularán por lo establecido en el artículo 163 del RGLCAP.
59.- Obraren jasoera.	**59.- Recepción de la obra.**
1.- Kontratistak kontratua bete duela esango da, xedea osorik gauzatu duenean, kontratuan ezarri bezala, eta Administrazioa ados dagoela.	1.- El contrato se entenderá cumplido por el contratista, cuando éste haya realizado, de acuerdo con los términos del mismo, y a satisfacción de la Administración, la totalidad de su objeto.
2.- Obra amaitu eta hurrengo hilean haren harrera egingo da ekitaldi formalean.	2.- Dentro del mes siguiente a la finalización de la obra, se procederá, mediante acto formal, a la recepción de la misma.
3.- Obrak egoera onean badauden eta aurreikusitako manuen arabera, administrazio kontratatzaileak eta haren ordezkariak izendatutako funtzionario teknikariak hartutzat emango ditu, eta dagokion akta jasoko da lau aletan. Akta hori harreran bertaratuek sinatu beharko dute. Ale bat Administrazioa ordezkatzen duen funtzionario teknikariari helaraziko zaio, beste bat zuzendaritza fakultatiboari, eta beste bat kontratistari, eta berme-epea orduan hasiko da. Harrera-aktan zuzendaritza fakultatiboak neurketa orokorrarekin hasteko eguna ipiniko du, kontratista ekitaldi horren jakinaren gainean geratuko delarik.	3.- Si las obras se encuentran en buen estado y con arreglo a las prescripciones previstas, el funcionario técnico designado por la Administración contratante y representante de ésta, las dará por recibidas, levantándose la correspondiente acta por cuadruplicado, que deberá ser firmada por los concurrentes a la recepción, entregándose un ejemplar al funcionario técnico que represente a la Administración, otro a la dirección facultativa, y otro al contratista, comenzando entonces el plazo de garantía. En el acta de recepción la dirección facultativa fijará la fecha para el inicio de la medición general, quedando notificado el contratista para dicho acto.
4.- Kontratista obraren harrerara bertaratzera derrigortuta dago. Egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio betebehar hori betetzen ez badu, Administrazioaren ordezkariak aktaren ale bat igorriko dio, hamar eguneko epean, egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan, eta kontratazio organoak ebatziko ditu horiek.	4.- El contratista tiene obligación de asistir a la recepción de la obra. Si por causas que le sean imputables no cumple esta obligación, el representante de la Administración le remitirá un ejemplar del acta para que, en el plazo de diez días, formule las alegaciones que considere oportunas, sobre las que resolverá el órgano de contratación.
5.- Obrak jasotzeko moduko egoeran ez daudenean, aktan hala adieraziko da, eta horien zuzendaritza fakultatiboak hautemandako akatsak adieraziko ditu eta beharrezkoak diren argibideak emango ditu, akats horiek konpontzeko epe bat ipiniz. Epe hori igarota kontratistak ez balitu akatsak konpondu, luzaezina den beste epe bat eman ahal izango da edo kontratua eten daiteke, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direlamedio.	5.- Cuando las obras no se hallen en estado de ser recibidas, se hará constar así en el acta, y la dirección facultativa de las mismas señalará los defectos observados y detallará las instrucciones precisas fijando un plazo para remediar aquellos. Si transcurrido dicho plazo el contratista no lo hubiese efectuado, se le podrá conceder otro plazo improrrogable o declarar resuelto el contrato, por causas imputables al contratista.

60.- Neurketa orokorra eta Azken Ziurtapena.	**60.- Medición general y Certificación final.**
1.- Obren harrera egin ondoren, neurketa orokorra egingo da kontratista bertan egonik, eta harrera egiten denetik hilabeteko epean zuzendaritza fakultatiboak proiektuaren arabera egiaz gauzatutakoen neurketa egingo du. Harrera egin eta 3 hilabeteko epearen barnean, kontratazio organoak gauzatutako obren azken ziurtapena onartu beharko du, hala badagokio, kontratistari ordainduko zaiona kontratuko likidazioaren kontura SPKL Legearen 198.4. artikuluan aurreikusitako epean.	1. Recibidas las obras, se procederá seguidamente a su medición general con asistencia del contratista, formulándose por la dirección facultativa, en el plazo de un mes desde la recepción, la medición de las realmente ejecutadas de acuerdo con el proyecto. Dentro del plazo de 3 meses, contados a partir de la recepción, el órgano de contratación deberá aprobar la certificación final de las obras ejecutadas, que, en su caso, será abonada al contratista a cuenta de la liquidación del contrato en el plazo previsto en el artículo 198.4 LCSP**.**
2.- Hamabi milioi eurotik gorako balio estimatua duten obren kasuan, likidazio- eta neurketa- eragiketak bereziki konplexuak direnean, pleguetan azken ziurtapena onartzeko hiru hilabeteko epea luzatzeko aukera aurreikusi ahal izango da, betiere, kasu guztietan, bost hilabeteko epea gainditzen ez bada, SPKL Legearen 243.1. artikuluko azken lerroaldean xedatutakoarekin bat etorriz.	2. En el caso de obras cuyo valor estimado supere los doce millones de euros en las que las operaciones de liquidación y medición fueran especialmente complejas, los pliegos podrán prever que el plazo de tres meses para la aprobación de la certificación final podrá ser ampliado, siempre que no supere en ningún caso los cinco meses, de conformidad con lo dispuesto en el último párrafo del artículo 243.1 LCSP.
61.- Berme epea eta likidazioa.	**61.- Plazo de garantía y liquidación.**
1.- Berme-epea harrera-datatik hasiko da zenbatzen eta ezaugarrien taulako **16.3. atalean** adierazitakoa izango da. Berme-epean zehar kontratistaren ardura izango da obren artapena eta zaintza. Kontratua sortetan banatua badago, sorta horietako bakoitzaren epea modu indibidualizatuan kontatuko da.	1. El plazo de garantía comenzará a contar desde la fecha de la recepción y será el indicado en el **apartado 16.3** del cuadro de características. Los gastos de conservación y vigilancia durante el plazo de garantía serán a cargo del contratista. En el caso de lotes, el plazo de garantía se computará para cada lote de forma individualizada.
2.- Epe horretan zehar aplikagarri den SPKL Legearen 110. artikuluan adierazitako kontzeptuengatik erantzungo du behin betiko bermeak.	2. Durante dicho plazo la garantía definitiva responderá de los conceptos señalados en el artículo 110 LCSP que resulten de aplicación.
3.- Epe horretan zehar, kontratista, edozein kasutan, obrak artatu eta zaintzeaz arduratuko da proiektuko baldintza tekniko berezien pleguan aurreikusitakoaren arabera eta obrako zuzendaritzak ematen dituen argibideak betez. Administrazioaren iritziz, zaintza horri jaramonik egin ez badio eta obra arriskuan jartzen bada, Administrazioak beregain hartuko luke kalteak ekiditeko zeregin hori kontratistaren kargura.	3. Durante dicho plazo cuidará el contratista, en todo caso, de la conservación y policía de las obras con arreglo a lo previsto en el pliego de prescripciones técnicas particulares del proyecto y a las instrucciones que dicte la dirección de la obra. Si, a juicio de la Administración, descuidase la conservación y diere lugar a que peligre la obra, se ejecutarán por ella misma y a costa del contratista los trabajos necesarios para evitar el daño.
4.- Harrera partzialak baleude, jasotako zatien berme-epea dagozkion harrera partzialen datetatik aurrera hasiko da zenbatzen.	4. En el supuesto de que hubiere recepciones parciales, el plazo de garantía de las partes recibidas comenzará a contarse desde las fechas de las respectivas recepciones parciales
5.- Berme-epea bukatu baino hamabost egun lehenago, zuzendaritza fakultatiboak obren egoerari buruzko txostena egingo du, ofizioz edo kontratistak eskatuta. Txostena aldekoa bada, kontratista erantzukizun guztietatik libre gelditukо da –Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 244. artikuluan xedatutakoan izan ezik –, eta bermea itzuli edo kitatu beharko da, kontratua likidatu, eta, egiteko ordainketarik baldin badago, ordaindu, 60 egun naturaleko epean. Txostena aldekoa izango ez balitz eta antzemandako akatsak obrak egiterakoan izandako hutsuneen ondorio badira eta ez eraikitakoaren erabilerarenak, berme-epearen barruan obra zuzendaritzak beharrezkoak diren aginduak emango dizkio kontratistari konponketak egin ditzan eta horretarako epe bat emango dio; lan horiek egin bitartean kontratista arduratuko da obren zaintzaz eta ez du inolako ordainik jasoko berme epea luzatzeagatik.	5. Dentro del plazo de quince días anteriores al cumplimiento del plazo de garantía, la dirección facultativa, de oficio o a instancia del contratista, redactará un informe sobre el estado de las obras. Si este fuere favorable, el contratista quedará relevado de toda responsabilidad, salvo lo dispuesto en el artículo 244 de la LCSP, procediéndose a la devolución o cancelación de la garantía, a la liquidación del contrato y en su caso, al pago de las obligaciones pendientes, que deberán efectuarse en el plazo de 60 días. Si el informe no fuese favorable y los defectos observados se debieran a deficiencias en la ejecución de las obras y no al uso de lo construido, durante el plazo de garantía la dirección facultativa procederá a dictar las oportunas instrucciones al contratista para la debida reparación de lo construido, concediéndole un plazo para ello durante el cual continuará encargado de la conservación de la obra, sin derecho a percibir cantidad alguna por ampliación del

	plazo de garantía.
6.- Edozein kasutan, berme-epe hori igaro ostean, txostena aldekoa balitz edo, bestela, eraikitakoa konpondu ostean, egiaz gauzatutakoen likidazioaren proposamena egingo du zuzendaritza fakultatiboak hilabeteko epean, eta kontratistari jakinaraziko zaio hamar eguneko epean bere adostasuna ager dezan edo egokitzat jotzen dituen erreparoak azal ditzan. Kontratistaren erantzuna jaso ondoren edo horretarako ezarritako epea igaro ostean, bi hilabeteko epean, kontratazio organoak likidazioa onartu beharko du eta, hala badagokio, haren ondoriozko saldoa ordaindu.	6. En todo caso, transcurrido el plazo de garantía, si el informe fuese favorable o, en caso contrario, una vez reparado lo construido, se formulará por la dirección facultativa y en el plazo de un mes la propuesta de liquidación de las realmente ejecutadas, notificándose al contratista para que en el plazo de diez días preste su conformidad o manifieste los reparos que estime oportunos. En el plazo de dos meses, contados a partir de la contestación del contratista o del transcurso del plazo establecido para tal fin, el órgano de contratación deberá aprobar la liquidación y abonar, en su caso, el saldo resultante de la misma.
7.- Espedientean behar bezala arrazoitutako interes publikoko arrazoi ezohikoengatik kontratazio organoak obraren egiazko okupazioa edo hura erabilera publikoaren zerbitzura ipintzea adostuko balu, harrera-ekitaldi formala bete gabe ere, inguruabar horiek gertatzen direnetik aurrera obraren harrera-ekitaldiari dagokion ondorioak emango dira HAKLAO Legearen 168. artikuluan ezarritako moduan.	7. Siempre que por razones excepcionales de interés público debidamente motivadas en el expediente el órgano de contratación acuerde la ocupación efectiva de la obra o su puesta en servicio para el uso público, aún sin el cumplimiento del acto formal de recepción, desde que concurran dichas circunstancias se producirán los efectos y consecuencias propios del acto de recepción de la obra en los términos establecidos en el artículo 168 del RGLCAP.
62.- Ezkutuko akatsen erantzukizuna.	**62.- Responsabilidad por vicios ocultos.**
1.- Obra suntsituko balitz edo bere funtzioarekin bateraezinak diren kalte larriak jasango balitu berme-epea igaro ostean, eraikuntzako ezkutuko akatsen ondorioz, kontratistak kontratua ez duelako bete, hura izango da gertatzen edo adierazten diren kalte eta galeren erantzulea hamabost urteko epe baten barruan harrera egiten denetik zenbatzen hasita.	1.- Si la obra se arruinara o sufre deterioros graves incompatibles con su función con posterioridad a la expiración del plazo de garantía, por vicios ocultos de la construcción, debido a incumplimiento del contrato por parte del contratista, responderá éste de los daños y perjuicios que se produzcan o se manifiesten durante un plazo de quince años a contar desde la recepción.
2.- Halaber, kontratista izango da epe horretan zehar obran zimentazio, euskarri, habeei, forjatu, eustorma edo egiturazko beste elementu batzuetan eragindako eta eraikuntzaren erresistentzia mekanikoa eta eginkortasuna arrisku zuzenean ipintzea dakarten akats edo gabezien ondorioz sortutako kalte materialen erantzulea, horiek obraren harrera-datatik zenbatzen hasita erreparorik gabe edo horiek konpontzen direnetik aurrera.	2.- Asimismo, el contratista responderá durante dicho plazo de los daños materiales causados en la obra por vicios o defectos que afecten a la cimentación, los soportes, las vigas, los forjados, los muros de carga u otros elementos estructurales, y que comprometan directamente la resistencia mecánica y la estabilidad de la construcción, contados desde la fecha de recepción de la obra sin reservas o desde la subsanación de éstas.
